



1994ko martxoak 4

226. zenb.

PRESS

# ARRASATE

**Aurten  
zenbat?**

**%22,7!**

Zaldibarko futbito  
**Bigarren  
fasea**

# Euskaraz Arrasaten



ARRASATE



la merced 79 20 92  
IKASTETXEA



**2** URTEREKIN ERE  
HEMEN NAHI ZAITUGU



# Astopista eta autopistak

**X**XI. mendearen atarian gaude. Bost urte eta zortzi hilabete gehiago eta gure aroko 2000. urtean sartuko gara. Ez da makala, eta noski, prestatuak ere ondo prestatuak egon behar dugu. Astopista eta burdibidearen aroa atzean utziz, autobide edo autopista handi eta ederrak baliatuko ditugu horren data garrantzitsuan behar legez sartzeko. Arrasatearrok eta, oro har, bailarako gainerakook.

Maltzaga-Urbina autopistatik sartuko gara mende berrian. Espero dezagun, berau ez egitea, bailarentzat era guztietako hondamendia litzateke eta. Kaosa, anabasa, sasterria, kaka-nahastea. Bai, irakurle, guzti hori. (Guztiak antzerako esanahia badute ere, horrela botata hobeto, beldurgarriago geratzen da eta).

Alferrikako horrenbeste txosten eta eztabaidaren ondoren, ez egitea erabakiko balitz, agur garapena. Ah, garapena bakarrik balitz! Antza, inor gutxi konturatzen da baina garapen eza horren ondoren etorriko litzatekeen balore krisi sakonak txiki utziko lituzke mundu gerra handien ondorengo esistentzialismo eta abarrok. Ekologista eta gainerako sasi-xelebre guzti horiek hortaz ez konturatzea tira, baina zentzudunak diren gainerakook —gehientsuenak noski— ez ohartzea...

Hori bai, guztia ondo pentsatu beharra

dago. Maltzaga-Urbinak berak bakarrik ezin- gero luke, inolaz ere, gure garapen gosea ase. Horregatik, hona hemen Maltzaga-Urbina osotuko lukeen errepide sare integrala. Etor- kizunera begira (eta nola ez, garaiek eskatzen duten bezala, Europara) Arrasate-Ur- bia-Otzaurre-Altsasu pasabidea egokia litzateke. Horrela Irurtzun-Andoain autobide- ra berehala helduko ginatke eta, noski,

Iruñera ere bai. Gainera, aisialdiaren aroa (ez genekiena langabezia- gatik izango zela) datorki- gunez eta herritarrok den- bora izango dugunez, Donostiara joateko hiru bide azkar izan- go genituzke: Mal- tzaga, Beasain eta Irurtzun. Autoak bata bestean atze- an ri-rau batean pas- tatearen grina ere asetuko genuke.

Mendebalderuntz, Otsandio-Gorbeia-Amu- rri pasabideak Asturias, Ga- lizia eta Estatu Batuekiko komu- nikazioa samurtuko luke. Plangintza ho- nek ez du hegoaldea kontuan hartzen, orain- goz Gasteizekin nahikoa dugulako, baina etorkizun labur batean Agurainera zuzenean joko lukeen pasabidean ere pentsatu behar- ko litzateke. Kontziente naiz honek bere ordaina baduela baina garapenaren ordaina da. Hurrengo batean sartuko gara garapen kontu horietan.

**XABIER LETONA "ATAXI"**

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Xabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da. **Azaleko argazkia:** Yul Brynner, Cecil B. De Mille-ren 'Hamar Aginduk' filmean.



## Monte taberna

Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

## "EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28


## Memesa 79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du



**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak  
daukazu?**

**Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!**


**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

**"PAL"**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99



**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

**A-8 autopistan  
peajea  
kentzearen alde**

**A**spaldiko herri eskarari erantzunez, Eguzkiko ekologistok Bilbo-Behobian peajea lehen bait lehen bertan behera uztea premiazkoa dela uste dugu.

Eusko Jaurlaritzaren errepide plangintza orokorrak, berriz, peajea mantentzea ez ezik, 2003. urtetik 2020era luzatzea ere proposatzen du. Plangintza honek errepide sarea errazionalizatzea omen du helburu, baina, nork sinetsiko du?

Bilbo-Behobia autopistako peajearen luzapenak Maltzaga-Urbina eraikitzeke balio izango du. Administrazio buruzagiek diru laguntza Europatik etorriko dela sinistarazi nahi digute, baina guztiok garbi eduki behar dugu Maltzaga-Urbina ardatza eraikitzeke finantzabide bakarra A-8ko peajearen luzapena izango dela.

Europistasek, A-8ko peajeak hustiatzen dituen enpresak, urtean 5.600 milioi irabazten ditu, eta guzti hau geure poltsikoetatik... Non dago errazionalitatea?

Gainera, Zornotza, Eibar edo Orereta bezalako kasuetan errazionalitatea peajea kentzearen bidez etorriko da. Honela aipatutako herrietan autopistak barianteara egingo luke, bertako bizilagunen onerako. Baina beti bezala, administrazio zentzugabeko neurriak aurrera

doaz zenbait herritan bariante paraleloak eraikitzen ari direlarik. Non dago hemen ere errazionalitatea?

Kontestu honetan zera jakin nahi dugu: Ba al da Euskal Herrian gaur egun A-8ren liberalizazioa baino ekologikoki kalte gutxiago egiten duen, egitekoa errazagoa den, efikazagoa eta demokratikoagoa den trafikoen neurririk?

**ERLANTZ ALTUNA (EGUZKI  
TALDE EKOLOGISTAKOA)**

**Intsumisia eta  
kintoen bilerak**

**A**rrasatear batek Espainiako Senaduan arpegia ematen duenean intsumisioaren alde eta bera intsumiso bezala aitortzen denean, beste arrasatear batzuk beren kintako urte betetzea antolatzen ari dira ospatzeko.

Gaur Euzkadiko gazteak arpegia ematen ari direnean epaitegi eta espetxeetan niri iritzi zait, aurpegira txua botatzia intsumisioaren alde lanean dabilzane.

Baina, zer ospatzen dute Arrasateko talde hauek? Bere eta bere etxeko baimen barik Espainiako soldadua izatea? Edo ospatzen dutena da "Jura de la Bandera de España?". Nik, abertzale bezala, ez dut onartzen. Egun hori ez da ospatzeko eta bai korbata beltza jatzeko.

**ATARSA**

**Arrasatear  
guztiei**

**U**tzi gintuenetik urterot egiten den bezala, martxoaren lehen egun hauetan, Txomin Iturberi omenaldia egingo zaio.

Omenaldi hau ez da ulertu behar pertsona bakar bati egiten zaion omenaldi gisa. Omenaldi honekin Txominekin batera atzoko eta gaurko gudariak, euskal errepre-saliatu guztiak eta beren senitartekoak omendu nahi ditugu.

Txominek zituen helburuek eta ideiek; hau da, Euskal Herriak bere burujabetasuna lortzea, euskara gure eguneroko hizkuntza izatea, elkartasun soziala bultzatuz berdintasun soziala areagotzea... ez dute gaurkotasanunik galdu.

Guk, Herri Batasunako partaideok, bide horretan jarraitzen dugu eta helburu horien lorpenerako zein aspaldidanik gure herriak sufritzen duen bortxa eta eten-gabeko tentsio giroa gaintzetzeko gainerako abertzaleekin lan egiteko prest gaude.

Bihar, Amaia antzokian izango den mitin-jaialdian aukera ezin hobea dugu primeran pasatzeko eta gure proiektu politikoaren eta gure egitasmo zehatzen berri zuzena izateko.

Abertzale guztiok gonbidatuta zaudete biharko ekitaldira. Agur eta ohore gudaridari guztiei. Aurrera Bolie!

**ARRASATEKO  
HERRI BATASUNA**



# Bosniako gerran interbentzioa bai ala ez?



**Aitor Urrutia**  
**Fagorreko langilea (23 urte)**

Zerbait hartu beharko litzateke parte, baina eurek ere euren partetik ipini beharko lukete zerbait, borondate pixka bat arreglatzeko.



**Rosario Aldazabal**  
**Etxeakoandrea (70 urte)**

Egunero ikusten dugu gerra eta oso penagarria da. Nola lagundu ez dakigu askok, eta beste batzuek, dakitenek edo, ez dute nahi.



**Felix Barcina**  
**Ikaslea (17 urte)**

Golfokoan, interesak zirela eta, segiduan konpondu zuten guda hori. Hemen berriaz, ez dago interes ekonomikorik, eta ez zaie interesatzen konpontzea.



**Mari Carmen Rodriguez**  
**Tabernaria (39 urte)**

Interbenitu egin behar dela uste dut, bestela sekula amaituko ez den gerra izango da hori. Hor aritu dira jo ta sua, elkarri min ematen.



**Klaudio Heriz**  
**Jubilatua (70 urte)**

Nik ezutsat kasu haundirik eiti horri. Bertan badaukou nahikue lan.



**Ruth Hernandez**  
**Lore saltzailea (26 urte)**

Interbentzioa ondo dagoela uste dut; laguntzerik daukagunok, zerbaitetan lagundu dezagula.



**Iñaki Agirrebeña**  
**Komertziala (26 urte)**

Uste dut momentua iritsi dela zerbait egiteko. Erabaki hori hartu badute nahikoa pazientzia izan dutelako izan da. Ez zegoen beste erremedioirik.



**Itziar Unzueta**  
**Tabernaria (33 urte)**

Bai. Baietz uste dut, militarki ere bai. Abisu ematen diete erretiratzeko, eta erretiratzen ez badira, zerbait egin beharra dago.



HIZKUNTZ ARAZOAK  
HIZKETA ARAZOAK  
AHOTS ARAZOAK  
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis  
Tfnoak: 79 34 23 / 79-98 94

Telemezua-doaneko deia:  
900595959 - Bazkide Znk: 400438



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritoxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Iguaitorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udalzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 4**  
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.  
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

**Larunbata 5**  
 Egunez 22.00ak arte: Español, Iturritzi, 17.  
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

**Igandea 6**  
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera, Musakola.  
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

**Astelehena 7**  
 Egunez 22.00ak arte: Irizar, Eurgin.  
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

**Asteartea 8**  
 Egunez 22.00ak arte: Amezua, Sta. Marina.  
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

**Asteazkena 9**  
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.  
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

**Osteguna 10**  
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.  
 Gaeuz: Matxiategi, Bergara.

**4 OSTIRALA**

**ZINEA**

“La Ardilla Roja”. 7etan eta 10etan.

**ELKARRIREN AURKEZPENA**

Eskoriatzan, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean. Hizlariak: Maixus Rekalde eta Fernando Arzallus.

**KONTZERTUA**


“E.H Sukarra” eta “Hilzoriar” talde bermeotarra. Gaztetxean gaueko 9etan. Prezioa 400 PTA.

**ANTZERKIA**

Oihulari Klow taldearen: “Mujer Klowtrapublicidad”. Gaueko 10.30etan Amaia antzokian. 500 PTA. Antolatzaileak: Emakumeen Asanblada, Egizan, Ekin, Famili eta Gizarte Heziketarako zentrua eta Emakumearen Udal Saila.

**ANDALUZIA EGUNA**

Larunbatean ospatuko da. Goizeko 10.30etan Musakolako Santa Teresa elizan Rozioko meza. Arrasateko Kirolegian, egun guztian zehar gatzelu puzgarriak, zezen mekanikoa...izango dira, dohainik, haurrentzat.



**TXOMIN ITURBEREN OMENEZ**

Larunbatean egingo da jaialdia, Amaia antzokian gaueko 10.30etatik aurrera.

**5 LARUNBATA**

**ZINEA**

“Los Teleñecos en Cuentos de Navidad”. 5etan.

“En el Filo de la Duda”. 7.30etan eta 10etan.

**AEDko LUDOTEKA IBILTARIA**

Urbe auzoko aretoan. Goizeko 10.30etatik eguerdira arte.

**LAGUN AROKO ASANBLADA**

Amaia antzokian. Goizeko 9etan lehen deialdia, 9.30etan bigarrena.

**ZUHAITZ EGUNA**

Udala auzoan. 6. mailako haurrak gonbidatuta daude ekin-tza honetan parte hartzera. Irteera goizeko 9.30etan Herriko Plazatik. Udalan ibilalditxo egingo da eta ostean, zuhaitz landaketa. Partaideei ogitartekoa banatuko zaie.

**ELKARRIREN SINADURA**

**BILKETA**

Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Antzuola eta Bergarako tailerrak sinadura biltzera aterako dira. Goizeko 11etatik eguerdirarte.

**ANDALUZIAREN EGUNA**

Arrasateko kirolegian: 12etan dantza taldeen ekitaldiak; 3.30etan haur animazioa; 5etan dantza Sevilarren lehiaketa; 6etan Al-Andalus koro rozieroaren emanaldia; 7.30etan “Sueños de Andalucía” dantza taldea; 8.30etan Andaluziako himnoaren interpretazioa; 9.30etan afora Kataiden; 12etatik aurrera eta goizaldera arte dantzaldia.

**MITIN JAIALDIA**

Egitaraua: Arrasateko trikitilariak, bertsolariak (Jon Sarasua, Jon Maia, Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra eta Haritz Lopategi. Gai jartzaile Gabixola), Floren Aozen hitzaldia eta abeslariak (Anje Duhalde eta Xabier Amuriza). Aurkezlea, Xabier Zubizarreta. Gaueko 10.30etan, Amaia antzokian.

**6 IGANDEA**

**ZINEA**

“Bezperakoa ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban Gai-na, Dorletako Ama, Legutiano, Arrasate. 42 km.

**ZUBEROAKO MASKARADA**

Santutxuko Gaztedi dantza taldearen eskutik. Goizean barrikadak egingo dituzte: 10.30etan Urkuluko aparkalekuan, 11etan gaztetxe parean, 11.30etan eliza aurreko semaforoan, 12etan Basotxo parean, 12.30etan Araba Ibilbide hasieran, ordu batean Loramendiren Monumentuaren parean, ordu bata t'erdietan Arlutz taberna parean eta ordu 2etan Herriko Plazan. Arratsaldean Herriko Plazan eta eguraldi txarra egingo balu, Iturrigorri frontoian. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

**MENDI IRTEERA**

Orkatategira. Irteera goizeko 8.30etan, Besaideren Egoitzatik. Gazte ekintzak antolatuta, 14tik 18 urte bitartekoentzat.

**CAMBRIGDE UNIBERTSITATEKO AZTERKETAK**

First Certificate, Advanced eta Proficiency azterketak egiteko matrikula zabalik dago CIMen. Matrikula martxoaren 8a baino lehen egin behar da. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 796554 telefonora edo joan CIMera.



**7 ASTELEHENA****ZINEA**

"En el Filo de la Duda". 7eta eta 9.30etan.

**KAFE-TERTULIA**

Arratsaldeko 7etan. Harotz-Toki elkartearen. Egizanez antolatuta.

**HITZALDIA**

Gaia: ¿Queremos las mujeres el poder político?. Hizlaria: Arantza Campos. Udal Pleno aretoan, arratsaldeko 7etan, Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**ERGUIN ESKOLAKO IV. KULTUR ASTEA**

Antzerkia. Goizez eskola ikasleentzat. 6.30etan gurasoentzat.

**ARRASATEKO EMAKUMEEN AFARIA**  
**Martxoaren 12an. Kataide jatetxean. Gaueko 9.30etan. Prezioa 2.000 PTA. Izenematea, emakume elkarte bidez edo Hire eta Gorabeheran. Izenematea martxoaren 8a baino lehen.**

**ERGUIN ESKOLAN IV. KULTUR ASTEA**

Ekintza ugari izango dira aste guztian zehar. Baina aurtengo gai orokorra jan gelaren inaugurazioa izango denez, Oñatiko ostalari eskolako ikasle eta irakasleen laguntzaz, Erguin Eskolako ikasle guztientzat ekintza teoriko eta praktikoak antolatu dira. Klase teorikoan bazkal orduan jan gelan nola konportatu erakutsiko zaie. Egunero talde desberdinak bazkaltzen geratuko dira. Ikasle guztiei bazkaria emango zaie teoriar esandakoa praktikan jartzeko.

**8 ASTEARTEA****ZINEA**

"En el Filo de la Duda". 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Erguin eskolan. Gaia: "Juego y Socialización". 6.30etan.

**EMAKUMEEN EGUNA KAFE-TERTULIA**

Gaia: Emakumeok berdintasunaren bidetik goaz?. Moderatzailea: Amaia Vazquez. AEDko lokaletan, arratsaldeko 3.30etan, Ekinek antolatuta.

**HITZALDIA**

Gaia: "Ser tu misma y valorarte, te ayuda a cambiar". Hizlaria: Alazne Eizagirre. Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan, arratsaldeko 4etan.

**AURKEZPENA**

Gaia: Berdintasunerako Agentearen zeregina. Hizlaria: Rosa Mondragon. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arratsaldeko 6etan.

**MANIFESTAZIOA**

Seberotik irtengo da arratsaldeko 7.30etan. Egizanez eta Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**EMAKUMEEN EGUNA**

Aste guztian zehar ekintzak izango dira: hitzaldiak, mahainguruak, kafe-tertuliak. Martxoaren 8an besteak beste, manifestazioa ere izango da.

**9 ASTEAZKENA****ANTZERKIA**

Erguin eskolan, 6.30etan. Erdi zikloek antolatuta, gurasoentzat.

**POESIA ERREZITALDIA**

Leopoldo Paneroren poesia errezitara. "Orfebre" bere azken liburuaen poesiak. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan. Udal Liburutegiak antolatuta.

**MISERABLEAK EIBARREN**

Miserableak opera rock-a Eibarren ikusteko aukera izango da martxoaren 12an. Emanaldia, gaueko 10.30etan hasiko da, Ipurua kiroldegian. Eibarriera joan nahi baduzu, AED eta HIREn salgai daude sarreak. Prezioa 800 PTA.

**MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK**

**Martxoaren 12an Bilbon egingo den manifestaziora joateko Arrasateko Elkarrik autobusak antolatu ditu. Autobusa 3.30etan aterakoa da Garibaitik. Izenematea Hiren edo Monten, martxoaren 10a baino lehen.**

**GIPUZKOAKO EMAKUMEEN BAZKARIA DONOSTIAN**

Martxoaren 12an. Gipuzkoako Famili eta Gizarte Hezietarako Zentru guztietako emakumeekin. Arrasatek autobus zerbitzua izango da. Izenematea zentruan edo 790459 telefonoan.

**10 OSTEGUNA****MAHAINGURUA**


Gaia: Emakumearen parte hartzea lan munduan. Hizlariak: Maite Aristegi (EHNE), Nekane San Migel (epailea), Itziar Unzueta (Inkoako zuzendaria), Elena Mondragon (INEMeko ordezkaria) eta emakume langabetu bat. Moderatzailea: Bego Zubia.

**MENDI IRTEERA**

Besaide Mendizale Elkarrekin antolatuta. Ibilbidea: Orozko, Itxina eta Areatza. Irteera martxoaren 13an, goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea martxoaren 8, 9 eta 10ean, 7.30etatik 8.30etara, Besaideren Egoitzan. Prezioa: bazkide nagusiek 1000 PTA, gazteek 500 PTA, bazkide ez diren nagusiek 1.300 PTA eta gazteek 800 PTA.

**ESKI TRABESIA**

Besaide Mendizale Elkarrekin antolatuta. Belaguara, martxoaren 12 eta 13an. Izenematea martxoaren 8 eta 9an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan. Informazio gehiago bertan emango dizute.





“EHUn Kazetaritza ikasi ondoren Jon herri komunikabidetan egin da kazetari. ARRASATE PRESSEDEN eta Berrigaran lan egin zuen eta Arrasate Telebistako albistegietako kazetari eta aurkezle izan zen bi urtez. ‘Oso jende gutxi ginenez, denetatik egiten ikasi nuen. Oraingo lanean hartzen zaila den ikuspegi orokorra eman zidan Arrasateko eskarmentuak’. Hainbat kazetaritza eta literatura sari irabazi dituen arrasatear honek, sorkuntzarako duen ahalmenaz baliatuz, berea izango den programa egin nahi luke”.

Jon Anduezak

## BERRIPAPERA

“Ez Melismak, ez Ritmok, ez Scherzok, ez gustu ofiziala erabakitzen duen inork ez dizkit kenduko bizipen errepikaezin horiek, Arantzazuko entsaioak, Debako estreinaldi espektantea, Santa Mariako sakristiarako pasiloan inguratzen gintuzten pertsonen irrifarrea eta eskerrona, euren ezpainetako ‘Precioso’ ak, edo beranduago Arrasaten egindako bertsioa, ‘musikan jantzitako’ 81 kantoreekin. Eta guzti hori giro bikainean, kantoreen, hiru zuzendarien eta batez ere, Jose Antonio Sainzen, emanaldien azken erantzulearen ahaleginari esker. Barkaidazue denok, baina nire ezjakintasunetik, publiko orokorrrak antzeman ziola uste dut, ezjakin horrek ere bai, antzeman ziola eta eskertu egin zuela, eta horrek urrea balio du!”

Eugenio Etxebestek

## KANTUZ

“Guzti hau dela eta ditugu gure begietako ñiñiak bezain gogoko Euskaldunon Egunkaria, Argia, Euskal Prentsa Lokala, euskal argitaletxeak etab...”

...badakigu inor gutxi azalduko litzateekela diogunaren aurka; baina dioguna da, alde egon (edo alde egin) beharra dagoela. Premia handiko kontuak dira Euskal Kulturarenak. Eta ez gaude prest, beste gutxien gaintetik, negozio baino ez diren zenbait eta zenbait proiektu sasi-kultural gure eguneroko bazka izan daitezen”.

Xabier Zubizarretak 94-2-23


## Egunkaria

## Zen helbururekin sortu zen San Jose Ikastetxea?

**1** 938ko martxoaren 3an ikastetxe berri batetako atea zabandu ziren Arrasaten, San Josè eskolarenak, 1967tik aurrera San Viator izenez eza-gutzen dugunarenak hain zuzen ere.

San Josè eskola, kezka edo ardura bati erantzuteko asmoz sortu zen. Hainbat arrasatearren ustez herriaren garapen eta hazkundeak bertako gizon-emakumeen kalitateaz bazuen zerikusirik. Eta noski, argi zuten kalitate hori lortu ahal izateko derrigorrez eskolatik pasatu beharra zegoela. Baina ez edozelako eskolatik. Eskola honek dinamikoa izan beharko zuen, errealitatera moldatu eta berau kontutan edukita aurrera egin ahal izateko. Era honetan, 1938an San Viatorreko elizgizonek, asmo guzti hauek lortu ahal izateko, hazia ereiteari ekin zioten. Horrela bada, gutxinakagutxinaka fruituak batzen hasi ginen; beti ere azken emaitzak hasierako ametsak baino garrantzia gutxiagoakoak izaten direla ikusiz, baina itxaropena galdu gabe.

Gaur egungo San Viator ikastola 60 urtetako ibilbidearen ondorioa da eta bertan bildu zaigu gizartearen onespina duen hezkuntz eredu. Urte guzti hauetan zehar helburu bat izan dugu beti, Arrasateko herriari laguntzea. Ez zalantzagabeko iparra izateko asmoz, bai ordea garaiaz bat datorren erreferentzia izateko asmoz. Bere itxaropena barreiatu nahi du, harengan fedea duelako.



Jose Luis Rubio  
Viatorista



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**AEDren batzarra**

AEDk urteko batzarra egin zuen joan den ostegunean Monterronen. Biltzarrean, etorkizun hurbilerako norabidea aztertu zuten, eta auzoetara zabaltzeko asmoen berri eman zen: gazteentzako lokalak irekitzeaz gain, auzo bakoitzean lan edo ardura-taldeak eratu nahi ditu AEDk. Aurrera begirako beste urrats bat, sail konkretu batzuen erakundetzea izango da. Hain zuzen ere, ume eta gaztetxoekin lan egiten duen Txatxilipurdi taldea eta Ekin emakume taldea aurten AEDren enbor nagusitik banatzeko intentziora dago, izaera propioa har dezaten, beti ere AEDren helburu bereberekin: Arrasaten euskaraz bizi izatea posible egitea.

**Aurrekontu eta kuotak**

AEDren biltzar berean diru-kontuak ezagutu eta onartu ziren. 93ko jardunak 36 milioi PTako gastu eta sarrera orekatu batzuk eman zituen, 10. urteurreneko ekitaldiak zenbatu barik. 94rako, ordea, 52 milioi PTako aurrekontuak onartu zituzten. Bazkideen kuota



**Deba Bailara Bizi-Bizirik-en martxa**

Igandean izan zen Deba Bailara Bizi-Bizirik taldeak antolatutako mendi-ibilaldia, eta ez aurreko asteburuan, azken aldizkarian hankasartze nabarmen batean genion bezala. Ehun bat lagunek hartu zuten parte Gatzagatik irten zuen martxan. Maltzaga-Urbina autopista proiektuaren aurkako talde honek, ardatz azkar horrek hondatuko lituzkeen bazterrek ezagutzeko antolatu zuen ibilaldia, Deba ibaiaren jaiotza-iturriraino joan ziren. Pare bat orduko ibilbidea egin zuten eta, ondoren, Deba Bailara Bizi-Bizirik-eko ordezkariak talde ekologista desberdinek proposatzen dituzten alternatibak azaldu zituzten. Gainera, Landa eta Gatzagako bizilagunen elkarteak beren alternatiba azaldu zuten, bideo baten bitartez.

arrunten igoera ere onartu zuten (5.000 PTatik 5.250era). Kargu berritzeak ere onartu ziren batzarrean.

**Cerrajerako protesta**

Transformados Metálicos eta Cerrajera enprese-

tako langileek kontzentrazioak eginen hasi dira, joan den astetik, UCEM korporazioak proposatu dien erregulazio-plana salatzen. UCEMen asmoa lantegi biak trasladatzea da, plantilak erdira murriztuz: Cerrajeran 36 langile

kanporatuko lituzkete eta Transformadosen beste 52. Langileek lanpostu guztiei eutsi nahi diete.

**Oihua taldea**

Arrasateko Pobreziaren Aurkako Taldeak izen berri bat hartu du: Oihua taldea. Elkarte honen helburua gero eta hedatuago dauden pobrezia eta marginazio egoeren aurka protesta egitea da. Xede horrekin, kontzentrazio bat egin zuten joan den ostegunean Gelma lantegiaren aurrean, enpresa horretan ikasketa-kontratu berriarekin hartu dituzten 16 gazteren kasua salatzen. Pobreziaren aurkako talde hau abenduan sortu zen, dei zabal baten ostean.

**JAIOTZAK**

• Jokin Mendizabal Aguirre. Otsailaren 23an.

**HILDAKOAK**


- Francisco Nuñez Meto. Otsailaren 22an. 79 urte.
- Carlos Fernandez Ortiz de Pineda. 23an. 64 urte.
- Pedro Gonzalez Eraña. 24ean. 68 urte.
- Juan Larrañaga Lenbide. 25ean. 82 urte.
- Francisco Uriarte Fernandez de Arroyabe. 27an. 73 urte.
- Higinio Gerardo Barbero Sierra. Martxoaren 1ean. 73 urte.

**Permanentearen hilabetea**

**“EDERTU”**

ileapaindegia **%.50eko** deskontua egingo dizu astelehen, astearte eta asteazkenetan

**Martxoan bakarrik !!**



San Andres auzoa Tfnoa:79 04 28





EUKENI OLABARRIETA \*

## Kirola aire zabalean

**Erregulartasunez** ariketa fisiko edo kirolen bat egiten duenak—izan daiteke igerian, lasterka edo bizikletaz ibiltzea, edo beste kirolen bat egitea, edota besteri gabe, bizkor samar oinez edo paseoan ibiltzea—, horrelako zerbait egiten duenak pisu egokiari eusten dio, lasaiago egoten da, arteri-tentsioa murrizten du, dieta zaintzen du, bere profil lipidikoa eta metabolismoa hobetzen ditu, organismoa hobeto oxigenatzen du, etab. Kirolak ondorio asko eta onak ditu organismoan, baina gainera, eragin nabarmen eta onuragarria du bizieran.

Kirolgintzak, erregulartasunez egindako ariketa fisikoak, ez du arrakasta handirik gure gizartean. Osasunari buruzko 1992ko Euskal inkestaren arabera, helduen %70 sedentarioa da, ez du inolako kirolik egiten bere astiune edo aisialdian. Emakumezkoak gizonenak baino sedentarioagoak dira, eta zaharrak gazteak baino gehiago. Azken 6 urteotan ez da aldaketarik sumatu.

Gukegindako inkesten arabera, azken urteotan helduen

%7,5ak bakarrik egiten du kirolen bat erregulartasunez, hau da, astean 2 edo 3 saio, eta 45 minutu baino gehiago saio bakoitzean.

Izan ere, ez da nahikoa kirola ona dela esatea; bitartekoak eta baliapideak jarri behar dira jendeak egin dezan, eta aire zabalean bada, are hobeto.

Gure bizierak, lan estresgarriak, telebistaren eskaintzak, gutxieneko ahaleginaren legeak... denak bultzatzen gaitu sedentarismora; eta hori eransten badiogu aire zabalean kirola egiteko gure inguruan erraztasunik ez izatea, orduan erraz ulertuko dugu zergatik garen hain gutxi kirola erregulartasunez egiten dugunak.

Oso ongi dago esatea kirola oso ona dela; txalogarriak dira kirolgintza bultzatzeko eta honen premiaz gizartea jabeartzeko kanpainak eta aholkuak. Baina jarrerak aldatzea ez da aski helburuak lortzeko; eta hori erakusten du azken 6 urteotan aldaketarik ez egoteak. Portaera edo jokabideak aldatzea lortu behar da, eta honeta-

rako bitartekoak jarri eta erraztasunak eman behar dira. Lasterka egitea, bizikletaz edo oinez ibiltzea, onak badira osasunarentzat, horiek praktika sustatu eta erraztu egin behar da, eta jendeak horiek egin ahal izateko esparru naturalak behar ditu, arriskurik gabe egiteko, auto, motor eta kamioien beldur izan gabe; hitz batean, kirola egin eta naturaz gozatzeko, baina segurtasunez eta biktimarik gabe. Eta honek ez du inbertsio handirik eskatzen; sarritan aski da lehendik dagoena kontserbatu eta hobetzea.

Horregatik egokia litzaiteke bide eta bidezidor zaha-rrak, erabiltzen ez diren trenbideak berreskuratu eta kontserbatzea, guztiok aire zabalean ariketa egin ahal izan dezagun, naturaz gozatzu eta arriskurik gabe.

Esperientziak eta eskarmentuz badakigu errepide, saihesbide eta autobide berri bat egiten denean, aipaturiko bide zahar horietako asko galdu egiten direla betirako, eta herritarrok natur esparru horiek gabe geratzen garela. Arrasateko saihesbidea egin zenean, herri hau Aretxabaleta eta Eskoriatzarekin lotzen zuen zatia galdu genuen, eta bidezati hura, kirolari eta pasealariek ezezik, lanera oinez joaten zirenek ere erabiltzen zuten, oso egokia den zenbait ariketa egiteko, energia aurrerzteko eta ingurunea ez kutsatzeko. Maltzaga-Urbina ardatzean egin beharreko azpiegitura berriak direla eta, antzeko gauzak ez gertatzea espero dezagun.

**MEDIKUA, TRENBIDEA  
BERREZKURATZEAREN ALDEKO  
TALDEKOA**

## USTEAK USTE

### GAI GARA

**Duela hilabete bat esperientzia polit bat bizi izan nuen. Zer dela eta? Ba... Urbina-Maltzaga bide azkar bat egiteko proiektuari buruzko kontsulta bat egiteko asmoz zozketaz aukeraturiko talde baten parte hartu nuelako. Martxan ari diren talde hauetan adin guztietako jendeak hartzen du parte. Eta gurea ez zen desberdina izan. Gazte eta ez hain gazte, han izan ginen. Gure taldeak izandako eztabaidak alde batera utziz, han ikusitako errespetoa adieraztera natorkizu, adiskide. Partehartzaileen arteko errespeto eta elkarlana. Esperientzia bitxia, benetan. Batez ere egunero ikusten dugun politikari eta alderdi politikoen jokaera ikusi eta gero. Behin baino gehiagotan entzun ohi dugu herri bakoitzak merezi dituen politikariak izaten dituela. Ez nago batere konforme. Ez nago konforme, herritarrok edozein arazori buruz eztabaida eta erabakia hartzeko gai garelako. Hori, politikariak eta talde politikoak azaltzen ez badira. Jakin badakit asmatzeko daukagula oraindik nola eraman litekeen aurrera gizarte bat talde politikorik izan gabe. Baina, ez litzaguke hain zaila egin beharko gure emakume eta gizakumei protagonismo gehiago ematea. Denon esku dago. Gai gara eta.**

JOSE RAMON ELORTZA

### LODITASUNA, LIPOESKULTURA, LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

#### ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62


## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62







Epeleko isurtegi mankomunatuaren aireko ikuspegia.

## 94rako aurrekontuak onartu ditu Mankomunitateak

Deba Garaiko Mankomunitateak 599 milioi PTAko aurrekontua izango du aurten. Aurrekontuak joan den astean onartu zituen Mankomunitateak, Aretxabaletan egindako bilera batean. Udalek aportatuko dituzte aurrekontuetako 265 milioi, eta Arrasateko udalak jarriko du atal horretan gehien: 106 milioi PTA. Beste diru sarrera batzuk, beste instituzioetatik (INEM eta Jaurlaritzako sail desberdinetatik, adibidez) formakuntza eta enplegu programei laguntzeko jasotzen direnak dira.

Iaz baino 50 milioi PTA gehiago dira, eta duela lau urteko kopurua bikoiztu egiten dute aurrekontuek. Hala ere, hazkunde hori izan arren, gastu kontentzioa ere iritsi da Mankomunitatera, eta aurten ez da izango ez soldata igoerarik ez plantilaren hedapenik. Ondorioz, gastuen hazkundera zerbitzu gehiago eskaintzetik etorriko da.

Inbertsioen atalik handiena zabor-bilketara eta prozesatzeak hartuko du. Alor horretan, Markuletekoa bezalako hondakin be-

reziak birziklatzeko beste bi estazio irekiko ditu Mankomunitateak, eta paper eta beira-ren bilketan sakontzeko asmoa ere badute, denda eta tabernetara zuzendutako "atez-ateko" zerbitzu berri batekin. Iaz funtzionatzen hasitako Epeleko isurtegi berria ere martxa osoan hasiko da aurten, eta horri esker, eskualdeko beste isurtegi batzuk ixten joateko aukera izango da.

Beste partida garrantzitsu batzuk Eskualdeko Garapenerako Agentziak eroango ditu. Agentzia honen barnean, besteak beste, Deba Garaian turismoa garatzeko plan bat dago. Plan honen arduradunak, Lourdes Romanok, ostegun honetan bertan aurkeztu ditu plangintzarako logotipoa, eskualdeko katalogo turistikoa, eta turismoa garatzeko ekintza-proposamenen ikerketa bat.

Garapenerako Agentziak enplegu-sustapen, formakuntza eta hezkuntza planak ere bultzatzen ditu, eta ekimen horietan sakontzeko Akitaniako AFPA erakundearekin hitzarmen bat sinatu berri du.

## Garrantzizko gaiak plenoan

Ostiral honetako plenoan gai garrantzitsuak dira tratatzekoak. Batetik, Aldaiko hilerri zaharra ixtea edo ez, panteoientzat irekita mantentzea erabaki beharko du udalak. Panteoijabeek berriro eskatu dute aste honetan, beren senitartekoak Aldain enterratzen segitzeko baimena. Bestetik, antimilitaristen taldeak mozioa aurkeztu du arrasatearren aurkako epaiketarik direla eta, udalaren babes eskatuz. Uharkapeko obrak egiteko behar diren banku-abalak eskatzeko baimena ere azaltzen da gai-ordenean.

## Ikastetxe publikoen eskaintza

Leintz Bailarako ikastetxe publikoko arduradunek eskola hauek eskaintzen duten hezkuntza ereduen berri eman zuten prentsaurrekoan. Besteak beste, lehen mailako hezkuntzan murgiltze linguistikoko plan bat garatzen ari direla eman zuten jakitera. Katalunian frogatu dira esperientzia hauek, eta Euskal Herriaren gure eskualdean bakarrik ari da martxan. Praktikan, osorik euskarazko irakaskuntza da, baina D erudian ez bezala, familia erdaldu-neko umeentzat egokitutakoa. Ikastetxe publikoetako zuzendariak 2 urteik 19 egin arte eskola publikoetan ikas daitekeela ere eman zuten jakitera.

### Begoña

lurrindegia

Drageria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



# Bake epaile bila ari da udala

Bake epaile berria aukezko prozedura bat hasi du udalak: deialdia egin beharrean, eskaini egingo dute postua. Horretarako, herriko kirol, kultur eta gizarte elkarrean lehendakari izandakoen zerrenda prestatu dute udalategian, eta zerrenda horretan nagusienetik hasita, jendeari postua eskaintzen hasiko dira, eta baietz erantzuten duen lehena, horixe izango da bake epaile berria. Prozedura bera Elgetan erabili dute, adibidez.

Hautatuak bete beharko dituen baldintzak osasunez ondo egotea, Arrasaten enpardonatuta egotea eta euskaraz eta gazteleraz ondo moldatzea izango dira.

Azken epaileak kargua izaz utzi zuenetik, probisionalki Oñatiko epaileak, Eskarne Zubiriak, atenditzen ditu Arrasateko auziak, astean bi



Laster irekiko dute Zuloaga kaleko bake epaitegi berria.

egunetan, gaur egungo Aldaigo epaitegian.

Hala ere, epaitegiak egotza berria prest dauka, eta egun gutxi barru egingo da traslazioa. Bake epaitegi berria Zu-

loaga kalean dago, zentrotik askoz hurbilago eta erosoago. Epaitegi berriaren egokitze lanok 15,5 milioi PTA kosta dira. Arrasatek (bai udalaren bidez zein Mankomuni-

tatik) egindako aspaldiko beste eskaera bat epaitegi oso bat izatearena da, Bergaran dagoenaren parekoa, baina ez dirudi asmo hori epe laburrean gauzatuko denik.

## Elkarri



### ...Oraintxe dugu aukera!

**Eskutitz hau sinatzen dugunok bakea nahi dugu gure Herriarentzat. Horretan denok ados, Sinestuta gaude, gainera, uzta jasoko bada, aurretik ereina behar duela. Hor ere ados.**

**Datorren martxoaren 12an eta «elkarizketa eta distentsioa ...oraintxe dugu aukera» lelopean manifestaldia ezango da Bilbon, Elkarri mogimendu sozialak deituta. Guztiz beharrezkoa jotzen dugu kontrako jarreraren arteko komunikazioari zubiak jartzea eta ELKARRIZKETA eta DISTENTSIONA bultzatzea: ez bakarrik ETA eta Gobernuaren artekoa; baita gizarteko**

**agente polarizatu guztien artekoa ere.**

**Elkarrik deitu, bai, baina geure izen propioan agertzen gara hemen; siglen mobilizazioa izan barik, gizartearena izan dadin. Gizarteak onartuta baitauka gatazkak elkarriketaren bidez konpontzen direla eta babestu egiten du honako ideia hau, Ziur gaude.**

**Asmo hauek eraginda, gurekin bat egiteko gonbitea luzatzen dizugu, adiskide, historikoa izan daitekeen mementu hau zure ekarpenaz ere eraiki dadin. Ekimen honekin zeure adostasuna adierazteko, 65.29.42 telefonora dei egin dezakezu, era berean.**



Felix Iñurrategi, Alberto Iñurrategi, Joxe Ramon Zubizarreta, Andoni Villar, Jon Arregi, Iñaki Mendiguren, Mikel Irizar, Ignazio Lakuntza, Nerea Alzola, Amaia Jauregi, Iñigo Txintxurreta, Jesus Mari Elkorro, Jon Andueza, Juan Ramon Garai, Jabier Markos, Iñaki Bordes, Jon Sarasua, Karmelo Uribarren, Arantzazu Loidi.





Zubillagako baseko suhiltzaile profesionalak ez daude brigada berriarekin ados.

## Eskualdeko suhiltzaile boluntarioen brigadarako deia

Deba Garaiko Mankomunitateak aurten sortuko duen borondatezko suhiltzaileen brigada, polemika giroan jaioko da. Izan ere, Aretxabaletako udalak brigadan ez parte hartzea erabaki du, eta Arrasatekoak oraindik ez du baietzik eman. Gainera, Oñatiko Zubillagako baseko suhiltzaile profesionalak ere aurka daude, hauek zerbitzu osoa eman ahal izateko profesionaltasuna eskatzen baitute. Arrasateko udalak, udal-brigada propioa berritzeko plan bat dauka lehenetik ere.

Nolanahi ere, Mankomunitateak suhiltzaile boluntarioak lortzeko deialdia egin du

dagoeneko. 30 bat lagun behar ditu, baldintza hauekin: adin nagusikoa izatea, Deba Garaian bizi izatea, eta gidatzeko karneta edukitzea. Eskerak Mankomunitateko egoitzara aurkeztu behar dira, martxoaren 18a baino lehen.

Aukeraketa egin ondoren, ikastaro bat izango dute maiatzean, eta irailean martxan egon liteke brigada berria. Aurten, martxan hasteko, 3 milioi PTAko aurrekontua izango du zerbitzuak. Boluntarioek konpentsazio ekonomikoak ere jasoko dituzte entrenamendu eta irteeretara joateagatik, baina kopuruak zehazteke daude oraindik.

## Debasaren kritikak

Maltzaga-Urbina autopista proiektua garatzen ari den Debasaren enpresa publikoaren esanetan, Maltzaga-Urbinaen aurka egiten ari diren adierazpenak "osatu-gabeak, manipulatuak eta testuingurutik ateratakoak" dira. Gainera, Debasak dioenez, bide honetatik ez lirakeke 5.000 auto pasatuko, baizik eta "12.000 edo 17.500, azken azterketen argitan". Administrazioak orain arte esan duenez, trafikoko eskasiak ez du errentagarri bihurtzen Maltzaga-Urbina, eta horregatik behar da A-8ko peajea luzatu.

## Autoetan kalteak

Arrasateko kale eta errepideetan kalteak izan zituzten bi kotxeren jabeek aurkeztutako indemnitazio ordaintzea erabaki du udalak. Kasu batean, alkantarila zulo batean zulaketa izan zuen auto baten jabeak 13.000 PTA emango dizkiote. Bestean, Bedoñako errepidean jausitako harri batzuen kausaz kotxe batek izandako kalteengatik, 18.000 PTA ordainduko ditu udalak.

**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE



**ESLU**  
**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**JOSU**

TXOKOLATEGIA  
KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



**ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA**

**MENDIA**

**Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak**

**Urriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59**






**Joxe Akizu** eta **Karmele Olanok**, urrezko eztaiak ospatu zituzten otsailaren 19an. 1944ko eta otsailaren 19an ere egin zuten bezela, meza Karmeleen herrian izan zen, Bizkaiko Ibarregelu herrian. Meza, euren seme apai-

zak eman zuen eta lobek bertsoak abestu zizkieten. Bazkaria, berriz, Lezika jatetxean izan zen, Kortezubin. Beheko argazkia ezkondu zirenekoa da. Goikoa, urrezko ezteiak ospatu zituztenekoa.



**Hernaniko Young Play** diskotekan aurkeztu zuten joan zen ostiralean, **Renault** etxeko auto berria. Ekitaldira Arrasate eta inguruko jendea ere gonbidatuta zegoen. Aurkezpean, **Meca** tailerreko **Yolanda Bujanda** arrasatearrak parte hartu zuen.



**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

**mokasin**

**Zapatak eta osagarriak**

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99





Dorletako Ama Txirrindulari Eskolarentzat izango da aurten beste diru sarrerarik ere. Kelme etxeak, txirrindulariek aurrendenboraldian erabiltzen duten bizikleta oparitu zion Andoni Zubiza-

retari. Honek, berriz, txirrindulari eskolari oparitu dio. Bizikletak bere balioa baduenez, eskolakoek saldu egingo dute. Beraz, aurtengo urtea diru aldetik hobetoxeagoa izango da.

Epelde



**Luis Cabrera** eta **Casi Rodriguez** azaroaren 27an ezkondu ziren. Ezkonbidaian Tunezera joan ziren. Urte askotarako!

## IZEN PROPIOAK

● **Estibaliz Loiti "Titu"**, 24 urte, Arrasate Kirolak dendan hasi da lanean. Esti Garagartzan bizi da eta ATBko Mondrasport saioko aurkezlea da.

● AEDko Batzar Oroko-  
rean honako hauek izenda-  
tu ziren partaide berri:

**Ruben Iñiguez, Dorleta Arana eta Andoni Loiti.**


● **Lurdes Romano**, 33 urte, Mankomunitateak eskatuta, Deba Garairako turismo arloko proiektua egin du. Lurdes oñatiarra da eta Oñatiko Turismo Bulegoan lan egiten du. Artearen historian lizentzia-tua da.

## BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABALETA**

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE



# ANTZERKIA



**"OIHULARI CLOWN"  
ANTZERKI TALDEA**

*"Modelo  
clowntrapublicidad"*

**Martxo ak 4, ostirala  
Gaueko 10,30etan  
Sarrera: 500 PTA**


**Gazte Txartelarekin 300 PTA**

*Antolatzaile eta laguntzaileak:*

*Emakume Assemblada, Egizan, EKIN, Familia-Gizarte Heziketarako Zentrua,  
Emakumeen Udal Saila, Arrasateko Udala.*



# Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



## Kontuak egiteko ordua

Lehen fasea amaitu, kontuak egin, eta bigarren fasera abiatu gara zuzen-zuzenean. Talde gehienentzat bukatu da Zaldibarko aurtengo txapelketa, eta sailkatutako 32ek bakarrik segituko dute. Azken jardunaldian zalantzak argitu zituen: A eta D taldeetan lidergoa zegoen jokoan, eta Trikiti eta Zulus taldeek izan ziren garaileak. B eta C taldeetan, sailkapeneko 8. postua zegoen kolokan.

B taldean, Tronkoteak eta Alpen Krausserrek parra egin zuten partidu erabakigarrian, eta gol-averagea Tronkoteen aldekoa zenez, hauek doaz aurrera. C taldean, sailkapena esku-eskura zuen Txokok, Motzek galdu egin zuelako, baina teoriarik kaskarragoak ziren Borrockn Rollen aurka kale egin zuen. Kanpoan geratu direnei, animoa ez galtzeko esango diegu lerro hauetatik.

**PUB HAIZEA**

ARRASATE

**LORATEGI**

Iturriotz, 7  
ARRASATE  
Tefnoa: 790467



\* Asteriskoz markatutakoei bi puntu kendu zaizkie zigorragatik.

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	19	18	0	1	80	18	<b>36</b>
SUM. UGARTE	19	17	0	2	116	30	<b>34</b>
ARLUTZ	19	13	4	2	85	35	<b>30</b>
UGLYS TXINATO	19	12	2	4	79	49	<b>28</b>
JEY JULIWER	19	11	5	3	74	36	<b>27</b>
SOKOAKOAK	19	12	2	5	79	59	<b>26</b>
ZOTZ	19	11	3	5	60	54	<b>25</b>
ANBOTOSTE KT	19	10	4	5	58	37	<b>24</b>
BERANGO SUK.	19	9	1	9	63	54	<b>19</b>
EUSKAL INDARRA	19	8	1	10	83	85	<b>17</b>
KOKKAS	19	8	2	9	54	60	<b>16</b>
BAYERN LENITZ	19	7	0	12	45	78	<b>14</b>
IKATZ	19	5	2	12	60	98	<b>12</b>
WHISKERIA LINDE	19	5	1	13	43	115	<b>11</b>
AUF DEM KOFFER	19	5	1	13	43	74	<b>9*</b>
FRAGUEL GOL	19	3	3	13	45	72	<b>9</b>
ETXE MOBILIARIO	19	2	1	16	47	88	<b>5</b>
BIZKORRAK A. TAB.	KANPORATUA						<b>(19)</b>
RESAKAS	KANPORATUA						<b>(9)</b>
ALLA KAUIDAUS	KANPORATUA						<b>(6)</b>

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
LOS HEREDIA	19	15	1	3	71	30	<b>31</b>
FOSFOROS	19	15	1	3	93	37	<b>31</b>
MIKELOS	19	14	2	3	82	38	<b>30</b>
NABARROS	19	13	4	2	74	37	<b>30</b>
ARR. KRISTALDEGIA	19	11	4	4	68	40	<b>26</b>
KAKAJAURI	19	10	5	4	67	42	<b>25</b>
PEPELUS	19	10	2	7	72	48	<b>22</b>
MOTZ	19	9	2	8	82	54	<b>20</b>
TXOKO TABERNA	19	9	1	9	43	55	<b>19</b>
LOS DALTON	19	7	4	8	60	63	<b>18</b>
FOTO IMAGEN	19	7	3	9	53	61	<b>17</b>
KIRTEN TROPEL	19	6	4	9	42	59	<b>16</b>
MZK GANBELAS	19	6	2	11	56	63	<b>14</b>
HIREI	19	6	2	11	61	69	<b>14</b>
POTROSORRI	19	7	0	12	37	49	<b>14</b>
LEYA	19	6	1	12	59	94	<b>13</b>
SIBILIUS ROVER	19	4	0	15	25	71	<b>8</b>
BORROCKN ROLL	19	5	0	14	44	92	<b>8*</b>
CORINTO TABERNA	19	3	1	15	42	118	<b>5*</b>
ADELAIDA HAIZEA	KANPORATUA						<b>(15)</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	19	17	1	1	122	48	<b>33*</b>
ZULOAK	19	14	3	2	67	35	<b>31</b>
DANOK LAGUN	19	10	9	0	50	26	<b>29</b>
IRATI STS	19	11	5	3	87	39	<b>27</b>
BUKANAK	19	12	3	4	79	42	<b>27</b>
ARR. KIROLAK	19	13	0	6	80	50	<b>26</b>
LEINTZ GARAGAR.	19	11	4	4	84	39	<b>26</b>
TRONKOTEAK	19	10	3	6	55	58	<b>23</b>
ALPEN KRAUSSER	19	10	3	6	81	102	<b>23</b>
BETRAYER	19	9	2	8	83	58	<b>18*</b>
GANBELAS	19	8	0	11	55	59	<b>16</b>
OJO AVISORE	19	5	5	9	78	83	<b>15</b>
NOTXINGAN FLOR.	19	5	5	9	58	73	<b>15</b>
DIEGO ANTONIO	19	5	2	12	58	71	<b>12</b>
EXCAV. LETE	19	4	6	9	47	57	<b>12*</b>
FANCY BOIS	19	3	4	12	51	80	<b>8*</b>
MONTERREY ZUBI B	19	2	3	14	50	120	<b>7</b>
KOPYPREST	19	3	2	14	52	92	<b>6*</b>
ATXANTA KE TE...	19	2	1	16	32	105	<b>5</b>
OOOLE	KANPORATUA						<b>(11)</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ZULUS	19	14	5	0	134	46	<b>33</b>
POTROAK LORA.	19	15	2	2	92	43	<b>32</b>
TOVARITX	19	14	3	2	70	44	<b>31</b>
TUTTIFRUTI	19	12	5	2	94	56	<b>29</b>
AC SURCOS	19	13	2	4	107	47	<b>28</b>
CARBUIROS	19	12	4	3	74	33	<b>28</b>
REVOLUTION ROCK	19	12	2	5	87	45	<b>26</b>
FRANCISCANERR	19	11	3	5	85	58	<b>25</b>
NUEVO TABERNA	19	9	3	7	62	56	<b>21</b>
LOS DIMY	19	6	7	6	66	50	<b>19</b>
SOLANO 7 MARES	19	8	3	8	82	92	<b>19</b>
LASO ARREGI	19	8	2	9	61	69	<b>18</b>
GURE LEKU	19	7	3	9	62	65	<b>17</b>
KRISKIBALDA	19	6	3	10	61	78	<b>15</b>
MACCABI DE LEV.	19	4	2	13	52	90	<b>10</b>
BODISCA	19	4	2	13	35	86	<b>10</b>
EZKINAKO HONTZAK	19	3	0	16	37	127	<b>6</b>
ILUNA TABERNA	19	3	1	15	35	109	<b>5*</b>
ELISABETH	19	2	0	17	36	102	<b>4</b>
KOAK LAIT	KANPORATUA						<b>(2)</b>

# ADI!!!



Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu

**GARAJEAKSALGAI**  
Amaia antzokiaren ondoan, Ferrixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!  
*Prezio harrigarriak*

**Informazioa eta salmenta: Tfnoa: 79 19 96 ARRASATE**





**Azken jardunaldian ere izan ziren gorabehera batzuk. Bizkorrak Avenida Taberna taldea ez zen partidura azaldu, eta azken jardunaldian kanporatuta geratu zen, beraz. Koxkas eta Excavaciones Lete taldeei ere bi puntuko zigorra ezarri zieten, ez arbitratzeagatik. Hiru kasuetan, zigor sinbolikoak izan dira, sailkatzeko batera aukerarik ez zutelako.**

**BELARRIRA**

◆ **Kanporatu eta erretiratuak.** Lehen fasean parte hartu duten 80 taldeetatik, seik ez dute lehiaketa amaitu. Horietatik bost partidu batera ez azaltzeagatik kaleratu dituzte, eta beraz, "erretiratu" egin direla esan dezakegu. Seigarren taldea, Koak Lait, ordea, espulatsu duten bakarra izan da (kanpoan geratu ziren lehenak izan ziren gainera).

◆ **Taldeen bilera.** Astelehenean egin zuten bigarren fasea antolatzeko bilera. Sailkatutako talde guztietako 80 bat lagun bildu ziren Monterronen egindako biltzar horretan, eta zozketa egiteaz gain, arau berri batzuk ere erabaki zituzten. Datorren astean emango dugu horien berri.

◆ **Uribe Auzoa.** Iturripeko Uribe Auzoa txapelketan parte hartzeko izenemate epea, datorren astelehen eta asteartean egongo da irekita, Monterronen, arratsaldeko 7etatik 8.30etara. 16 urtetik gorako 10 jokalaririk behar ditu taldeak izena emateko.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

- Uglys Txinato 3 - Zotz 1
- Suministros Ugarte 1 - Trikiti 2
- Jey Juliwer 7 - Koxkas 2
- Fraguel Gol 4 - Ikatz 3
- Etxe Mobiliario 3 - Euskal Indarra 5
- Auf dem Koffer 3 - Bayern Lenitz 5
- Anbotoste KT 4 - Arlutz 4

**C TALDEA**

- Pepelus 7 - Sibilius Rover 2
- MZK Ganbelas 3 - Nabarros 5
- Mikelos 3 - Motz 2
- Los Dalton 3 - Los Heredia 4
- Kirten Tropel 4 - Leya 3
- Hirei 3 - Kakajauri 4
- Fosforos 6 - Foto Imagen 4
- Txoko Taberna 2 - Borrocn Roll 3
- Arrasate Kristaldegia 5 - Corinto Taberna 5

**B TALDEA**

- Notxingan Florest 6 - Ojo Avisore 6
- Leintz Garagardotegia 2 - Monterrey Zubi Bel 2
- Irati STS 5 - Kopyprest 2
- Fancy Bois 2 - Ganbelas 4
- Diego Antonio 4 - Excavaciones Lete 4
- Bukanak 2 - Danok Lagun 2
- Atxanta ke te merece 3 - Betrayer 2
- Argi Ibili 4 - Arrasate Kirolak 5
- Alpen Krausser 3 - Tronkoteak 3

**D TALDEA**

- Tovarixtx 2 - Zulus 2
- Revolution Rock 4 - Solano 7 Mares 5
- Maccabi de Levantar 5 - Potroak Lorategi 7
- Laso Arregi 2 - Los Dimy 6
- Franciscanerr 3 - Gure Leku 3
- Elisabeth 1 - Ezkiñako Hontzak 4
- Bodisca 1 - Carbuos 2
- Iluna Taberna 0 - Nuevo Taberna 2
- AC Surcos 3 - Tuttifrutti 5

**SEAT** Udalaiz, S. A.

**Audi** **ADI!** **VW**

**2. Eskuko autoak**

<b>KADETT 1.6</b>	<b>SS-3679-Z</b>
<b>MARBELLA</b>	<b>SS-2589-AM</b>
<b>IBIZA</b>	<b>GC-9968-AK</b>
<b>GOLF</b>	<b>SS-1408-AK</b>

Musakola auzoa, z/g  
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

**Jovi**

**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



**BIGARREN FASEKO TALDEAK**

<b>A TALDEA</b>	<b>C TALDEA</b>
Los Heredia	Argi Ibili
Potroak Lorategi	Suministros Ugarte
Arlutz	Tovarixtx
Nabarros	Irati STS
Franciscanerr	Motz
Pepelus	Kakajauri
Zotz	Tronkoteak
Revolution Rock	Arrasate Kirolak
<b>B TALDEA</b>	<b>D TALDEA</b>
Zulus	Trikiti
Fosforos	Zuloak
Mikelos	Danok Lagun
Uglys Txinato	Tuttifruiti
Bukanak	Leintz Garagardotegia
Jey Juliwer	Carburos
Anbotoste KT	AC Surcos
Sokoakoak	Arrasate Kristaldegia



# Dena prest dago bigarren faseari ekiteko

**Astelehenean,** zerrendaburuak sailkatu ostean, zozketa egin eta bigarren faseko lau taldeen parekatzeak egin ziren. Ondoko zutabeen daukazue taldeen osaketa. Lehen begiratu batean, badirudi "deskafeinatuena" A taldea izan litekeela. Lehen faseko C taldean elkarren aurkako lehia bizian aritutako Nabarros eta Heredia berriro elkarrekin aurkituko dira talde honetan, eta zozketaren bitxikeriengatik, ez da lehen faseko B taldeko inor joan grupo horretara.

B taldean, Zulus, Fosforos eta Mikelos azaltzen dira talde indartsu bezala; eta C taldean, Suministros Ugarte eta Argi Ibili nahiko faborito

ageri zaizkigu, sailkapeneko bi lehen postuak hartzeko. D taldean, iazko bi finalistak ageri dira: Trikiti txapel-dunak eta Zuloak txapeldunordeak, eta 4. geratu ziren Leintz Garagardotegikoak ere bai.

Orain, bigarren faseko zazpi partidua jokatu beharko dira, eta talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira hurrengo fasera. Antolatzaileek ez dute oraindik erabaki zer txapelketa modu jokatu azken fase horretan. Bi aukera nagusi daude: final-laurdenak antolatu eta kanporaketa zuzenak egin, edo zortzi sailkatuen artean ligilatxoa egin. Txapelketa amaiera erabakitzearen baitan egongo da aukera.

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 5**

- Zaldibar**
- 09.00 AC Surcos - Zuloak
  - 10.00 Arlutz - Nabarros
  - 11.00 Anbotoste KT - Fosforos
  - 12.00 Los Heredia - Revolution Rock
  - 13.00 Zulus - Sokoakoak
  - 14.00 Franciscanerr - Pepelus
  - 15.00 Motz - Kakajauri
  - 16.00 Mikelos - Uglys Txinato
  - 17.00 Leintz Garagardotegia - Carburos
  - 18.00 Bukanak - Jey Juliwer
  - 19.00 Danok Lagun - Tuttifruiti

**Igandea 6**

- Zaldibar**
- 09.00 Tronkoteak - Suministros Ugarte
  - 10.00 Zotz - Potroak Lorategi
  - 11.00 Trikiti - Arrasate Kristaldegia
  - 12.00 Argi Ibili - Arrasate Kirolak
  - 13.00 Tovarixtx - Irati STS



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# ● Rosa Mondragon Emakumeen berdintasuna helburu

**Emakumearen berdintasunerako agentea da Rosa Mondragon duela gutxitik. ARRASATE PRESSEKO kazetari bezala aritzen aramaitar hau, udalak emakumearen arloa atenditzeko sortu duen lanpostua eskuratu arte.**

— Zelako kontaktua izan duzu lanarekin?

— Kontaktua ona izan da oro har. Nahiz eta hasieran zalantza asko eduki, momentu honetan esan daiteke eguneroko dinamika eta martxan sartu naizela jadanik. Beharbada udaletxean, departamentu desberdinetan emakume taldeekin, kontaktuak izan ditudalako eta hemendik aurrera horiek hobetzea izango delako nire lan nagusia.

— Berdintasunerako agentea zara; urruti dago berdintasun hori gure gizartean?


— Nahiz eta historikoki asko aurreratu dugun, oraindik ere lan asko geratzen zaigu berdintasun erreala hori lortzeko. Sentsibilizazio falta izan daiteke honen arrazoirik handiena. Dena dela, Arrasaten emanda dugu lehen aurreapausua emakume elkartei eta udalari esker. Lau emakume taldeek egunez egun bizi dute gaia eta udalaren aldetik, ez da interesik falta.

— Zer egin dezakete udaletxeko sail desberdinek emakumearenganako atentzioa areagotzeko?

— Lehendabizi emakumeekin eta emakumeentzat ekintzak eta gauzak antolatzeko interesa duela erakutsi. Nola? Hasteko, sail desberdinen artean koordinazioa egon behar du, horrela programa edo ekintza positiborako plangintza deitzen dena osatzeko. Bertan, enplegua, kultura, hezkuntza eta beste sailetan, emakumearekiko dauden asmoak eta ekintza konkretuak zehaztuko lirake. Azken finean, erakundeak Euskal Herrirako Emakundek egin duen ekintza positiborako plangintzaren antzerako zerbait egitea da helburua, baina Arrasateko egoerari egokituz.

— Zer aporta dezake udalak eta zer emakume taldeek?

— Kontuan hartu behar da orain arte emakume taldeek izan dutela Arrasateko emakumeen egoeraren berri; errealitatea egunez egun ezaugu izan dute. Beraz, hemendik aurrera ere errealitate horren lekuko izaten segituko dute eta udala, emakumearen sailaren bidez, eurekin izango dituen kontaktuen bidez, errealitate horri, arazo eta zalantza horiei erantzun bat ematen saiatuko da.



— Zer ekintza dituzue prest martxoaren 8rako?

— Aurren, nobedade bezala, Arrasateko lau emakume elkarteek hartuko dute parte egun honetan eta gainera programa osatzeko koordinazio bat izango dute. Ekintzak martxoaren 3an hasi eta 12rako antolatuta dagoen afari batekin bukatuko dira. Egitarauaren barruan, kafe-tertu-  
liak, hitzaldiak, antzerki eta zine emanaldiak eta mahainguruak izango dira. Dena dela, guzti honen zehaztasunak atera berri dugun triptikoan eza-  
gutuko dituzue. Aukera hau aprobe-  
txatu nahi nuke Arrasate eta inguru-  
ko herrietako emakumeak ekintza hauetan parte hartzera animatzeko.

— Emakume taldeen eskaera batzuk egoeraren azterketa bat eta babes-etxearena izan ziren. Zertan dira bi proiektu horiek?

— Egoeraren azterketari dagokionez, beste herri batzuetan eginikoa ezagutzen eta batzen gabilta. Proiektua aurkeztuta dagoen arren, ez da lan erraza eta beharbada denbora piska bat beharko dugu hori aurrera eramateko. Bestalde, babes etxea, berez, onartuta dago baina oraindik ez da konkretatu zein tokitan izango den. Azken finean zehaztea falta zaigu, baina laster martxan izatea espero dugu.

— Sentitu duzu inoiz emakume izateagatik lanean aukera berdina izan ez dituzula?

— Niri pertsonalki ez zait horrelakorik gertatu, baina ziur nago arlo edo enpresa askotan oraindik ere diskriminazio hori esistitzen dela. Egia da inork ez duela onartuko bere enpresan emakumea diskriminatzen denik, baina errealitatea ezagutuz, ziur nago kasu asko egongo direla. Bestela, esate baterako, zergatik daude hain emakume gutxi postu altuetan?

## ● “Arrasatera egokitutako ekintza positibotako plangintza egitea dugu helburu”



# Euskararen neurketa Arrasaten

## Erabilerari eutsi, ezaguera gora

Luis Fernandez

**Euskararen kale-erabileraren aurtengo neurketak %22.7ko datua eman digu. Iazko %25etik jaitziera, baina hala ere, azken urteen gorako joera konfirmatzen duen datua, euskara batzordearen iritziz. Aldi berean, ezaguerari buruzko datuak eman berri ditu Eustat-ek, eta datu horien artean Arrasateri dagozkion emaitza esperantzarriak argitaratzen ditugu hemen lehen aldiz.**

Kale erabileraren neurketa 1988tik udalak egiten duen test adierazgarri bat da. Kallean eta toki publikoetan, jendeak zela hitz egiten duen neurtzen du talde batek aste-betez, ezkutuan beti. Joan den astean izan zen ehundaka berriketaldi horien aurtengo neurketa, eta emaitza hemen dugu bero-beroa: hizketaldien %22.7 euskaraz izan ziren.

Iazko %25arekin gonbaratuta, jaitziera, baina ez da larritzekoa, Jose Felix Diaz de Tuestaren, euskara zerbitzuko arduradunaren ustez. Azken batean, hizketaldi neurketa datu nahiko aleatorioa da berez. "Gorabehera hauek ez dute garrantzi handirik, baldin eta joera goranzkoa adierazten badute", dio



AEDren batzarra, joan den ostegunean. Elkarre honen eragina funtsezkoa izan da euskara suspertzeko. JULIO

Diaz de Tuestak. Datorren urtean ere behera egin ezkerro, datu adierazgarria litzatekeela uste du Diaz de Tuestak, baina hala ere, erabilera kopuruak goia jo izana ere ez litzateke harritzekoa. Arrasaten euskaldunak erdiak izanik, erabilera %20tik gora izatea poztekoa da.

Datu partzialetan ere gorabeherak ageri dira. Auzoka, San Andresen demaseko igoera nabari da, iazko %9tik aurtengo %19ra. Uribarrin, aldiz, 15 puntuko beherakada. Adin taldeen datuetan, oreka handiagoa ikusten da: helduak dira gutxien egiten

duenak, eta haurrak gehien. Gazteen maila zertxobait jaitzitarren, media orokorrean dago.

Aurten, neurketari atal berri bat gehitu zaio: telefono-deien kontrola. Tolosako bi esperientzia zaharragotan oinarrituta, 429 dei egin ziren: Arrasateko telefonoen %5.7ra deitu zuten neurtzailerak, jendeak nola erantzuten zuen jakiteko. Lehen hitza euskaraz egin, eta lehen hitz "neutro" baten ostean euskaraz egindakoen artean 179 erantzun gehitzen ziren, dei guztien %41. Arrasatearren %49 badira euskaldunak, euskaldun horien %80ak telefo-


noz euskaraz egiteko joera duela ikusten da; euskaldunek uste zena baino gehiago egiten dutela, alegia (Tolosan, %60 euskaldun izan arren, deien %30 izan ziren euskaraz).

### ARRASATEN ETA E.A.E.N ALDERANTZIZ


Otsailean, Eustat estatistika institutuak euskararen ezagueraren hamar urteko gorakadaren datuak eman zituen (EAERI dagozkionak 1981etik 91ra). Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak oso garrantzitsutzat jo zituen datuok, baina Euskal Kulturaren Batzarreak



**EUSKALDUNEN HAZKUNDEA**



**EUSKARAREN ERABILERA ARRASATEN**



(EKB) irakurketa ilunagoa egin zuen: 86tik 91rako euskaldungoaren hazkundera, aurreko bost urteko tartearen erdira jaitsi baitzen.

Udalaren bidez, Arrasateri dagozkion Eustaten datuak eskuratu ditugu, eta horietan, EAeko joeraren alderantzizkoa nabari azaltzen da. 86tik 91ra, euskalduntzea moteldu beharrean, azkartu egin da nabarmen. 81ean, 9.965 euskaldun ziren Arrasaten, 3.315 ia euskaldun, eta 12.227 erdaldun. 91n, 11.347 euskaldun, 3.384 ia euskaldun, eta 10.161 erdaldun.

Tendentzien desberdintasun honetan faktore garrantzitsu bat ikusten du euskara zerbitzuko arduradunak: "AED eta ARKOk aldatu egin dute Arrasateko giroa, bai kulturala, eta bai jendearena". Udalaren lana ere aipatzen du Diaz de Tuestak, hainbat zerbitzu euskaraz eskaintzea lortu dute eta.

Zentzu horretan, beste urrats bat eman berri dute udaletxean, langileen artean euskara lan-tresna gisa gehiago erabiltzeko plangintza berri batekin. Gaur egunean, kultura, hezkuntza edo gazterian %100 euskaraz ari dira lanean, eta plan horrekin beste sailetan euskalduntzeko abiadura azkartzeko konpromezua hartu dute langileek,

euren borondatez. Zinegotzi eta alderdi politikoei ere onetsi dute plana, Gobernu Batzordearen bidez.

**ESKOLA EUSKALDUNAK**

Euskararen presentzia areagotu izanak, giro hedatu honek, jendea motibatu egin du, bereziki umeak euskarazko eruedetan matrikulatzera. Izan ere, euskaldungoaren gorakadan, faktore garrantzitsuena hezkuntza izan da, aditu gehienek ustetan, eta askoz ere neurri txikiagoan, alfabetatze-euskalduntzea.

Arrasaten ere, eskoletan "irauli" egin dira zenbakiak: 5-14 urteko umeen artean, 81ean, % 41ak hitz egiten zuten ondo euskaraz; 86an, %55ak, eta 91n, %78ak. "Duela 10 urte zera pentsa-

tzen genuen, posible izango ote da maisu-maistrak euskaldun izatea?", komentatzen digu Diaz de Tuestak. "Orain hori Arrasaten ia erabat lortuta dago, eta ez hori bakarrik, haurrak ere euskaldundu ditugu".

Ezagueratik erabilerarako jauzia, hiru faktore nagusiren baitan dago, Diaz de Tuestaren esanetan: bat, euskaldunen portzentaia %80an bada, erabilera disparatu egiten da. Bi, euskaraz erdaraz baino hobeto egitea; eta hiru, kontestuaren arabera.

Haurren artean, ezaguera neurri horretan gaude jadanik, baina bigarren faktorea oraindik ez da beteko, seguruenik, ume hauek hazten direnean. Hala ere, hurrengo belaunaldiari ama-hizkuntza euskara transmitituko diotela uste du Diaz de Tuestak, eta 40 bat urte barru panorama askoz hobea izango dugulakoan dago.

Predikzio horiek behar bada zientzia-fikzio itxura izan dezakete, eta etorkizuna asmatzea zaila den arren, optimismo hartzen du erronka euskara zerbitzuko buruak. "Horrela jarraitzea lortzen baldin badugu —eta horrela jarraitzeko ere lan egin behar harko dugu—, nik esango nuke gauzak ez doazela hain gaizki".

**T**elefono deien neurketan, euskaraz egiteko joera oso zabala dagoela ikusi da.

**KALE ERABILERA 1994an**

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Uribarri	34.43	21.37	25.08	11.11	21.36
Santamaina	7.24	2.25	9.63	3.61	7.15
San Andres	39.53	27.16	14.78	18.34	19.25
Musakola	39.28	28.23	16.02	13.41	20.74
Erdialdea	48.41	25.94	25.03	66.48	48.97
Arrasate	33.74	21.71	17.41	25.21	22.77

**EUSKARA TELEFONO DEIETAN**

1. Euskaraz		Erdaraz		Nuloak	
2. Euskaraz	Erdaraz	Euskaraz	Erdaraz	Euskaraz	Erdaraz
156	6	53	176	14	24
%36.3	%1.4	%12.3	%41.0	%3.2	%5.6

1. Telefonoa hartu eta lehen hitza. 'A ver' bezalako erantzunak nuloak dira.
2. Izen bat galdetutakoan erantzundakoa.



# Arbitro eta Federazioaren "pertsekuzioa" eskubaloian

**Eskualdeko** ligatik 2. mailara igotzea da Arrasate Kirolak helburua, eta promozioan sartzeko bi lehen artean geratu behar. Joan den larunbatean, aldiz, Bergarekin galdu ondoren (arbitroen pertsekuzioagatik, hein handi batean), zailago daukate helburu hori. Orain Pasaia eta Bergara daude mondrauetarren aurretik, baina behintzat aurreko biek elkarren aurka dute asteburu honetan, eta gora jotzeko aukera izango du Arrasatek berriro.

Bergaran 23-13 galdu zuen Arrasate Kirolak. Emaizta ilogikoa, baina taldeko guztien esanetan, arbitroen jarrera eskandalosoa erabakiorra izan zen markagailuan. Joko mozketaren gabea eta espultsio bat partida hasi bezain laster, eta horrela Bergarak bidea aske izan zuen atsedenera 12-5eko emaitzaz iristeko. Bigarren zatian ere, arbitroak antzera segitu zuen.

Partidua amaitutakoan Arrasate Eskubaloien Taldeko direktibak protesta azaldu zion federakuntzari. Arbitroaren eta Bergaran zeuden bi delegatu federatiboen jarreraren erasokorra salatzen du direktibak agiri batean, eta Federakuntza bera Arrasateren aurka dagoela dirudie-ladiote. Aldi berean, jokalaririk zorian zuten



Aleksandar Savcic sarajevotarra, Sasa, defentsa lanetan.

daritzak, erakutsitako portaeragatik.

Arbitroak direla, edo dena delakoak direla, igoera fasera iristeko helburua zailago dago orain. Helburu horrekin, gainera, fitxatu berri du Arrasate Kirolak bere jokalaririk jugoslaviar berria: Aleksandar Savcic, 'Sasa'. Sarajevokoa da Sasa, 22 urte ditu eta 1.94 metro altueran. Gerratik ihesi Eibarren bizi izan da erre-

fuxiatuta azken garaioan, baina hango Arratek hiru atzerritar bazituenez, Arrasaterak etorri da jokatzera. Oraingoz ondo aritu da, baina ikusi egin behar.

Printzipioz, Arrasatek inguruko beste jokalaririk batzuk nahi zituen azken fase honetarako, Aloña Mendikoak adibidez, baina federakuntzak ez zuen permititu kategoria bereko taldeetatik jokalaririk hartzerik.

## LABURRAK

### Saskibaloia: igandean denok Musakolara

Igandean (12.30) Atletico San Sebastian-en bisita izango du Arrasatek Musakolako kantxan. Berebiziko garrantzia dauka partidua honek, bi taldeak bigarren mailako bigarren faseko lidergoan parra doazelako. Atl. SS igoera lortzeko faboritoetako bat da, baina Arrasateko saskibaloiak une historikoa bizi du, eta Musakolako zaletuen laguntzaz, Txus Brizuelaren mutilek garaipena lortzeko esperantza guztia daukate. Horretarako, hala ere, joan den asteburuan baino zorte handixeagoa beharko dute: Bilboko Patronatoren kantxan, partido osoan irabazten joan ondoren partidua osoan, azkenean bilbotarrak nagusitu ziren (80-78).

### Athloneko frogak

Athloneko eskola-umeentzat antolatutako atletismo frogak egin zituzten larunbatean Iturripeko mini-pistan. 237 atleta gazte (10 urtetik 12ra) aritu ziren, eta hona frogaren bakoitzeko garaileak: Jon Lasagabaster eta Leire Ayani (luzera jautzia), Beñat Unzueta eta Maitane Gallastegi (pisu jaurtiketa), Aitor Berasa eta L. Ayani (60 m), Ekaitz Gredilla eta Naiara Unamuno (altuera jauzian), Aramaio eta SFX ikastetxeak (4x60 m).

## Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

## comercial san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

## hikein

MARKO-  
JARTZEAK  
Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



**PENALTIAK**

● **Deba Arroa** pilota txapelketa hasi zen joan den asteburuan. Herrien arteko neurketa honetan, Antzuola izan zen Arrasateren lehen aurkaria, eta hiru bikote arrasatearrek irabazi egin zuten. Bederatzi herrik hartzen dute parte lehiaketa honetan, bi taldetan banaturik.

● **Urko Bedia** atleta arrasatear gazteak bronzeko domina lortu zuen joan den asteburuko Gipuzkoako pista estaliko kadeteentzako txapelketan. 600 metroko frogan egin zuen lasterka Bedia, eta 1.33.26ko denbora lortu zuen. Froga berean, baina nesken artean, laugarren izan zen Maite Fuentes.

# Dorletako Amako taldeak aurkeztu dituzte

**Dorletako** Ama txirrindularitza eskolak, eskualdeko txirrindularien "harrobiak", bere taldeak aurkeztu zituen joan den larunbatean. Aurtan, bost talde izango dira eskolarekin korrituko dutenak. Nagusienak, 2. urteko jubenilak (10 txirrindulari); eta ondoren, 1. urteko jubenilak (14 txirrindulari), 2. urteko kadeteak (7 mutiko), 1. urteko kadeteak (beste 10) eta infantilak (6 gaztetxoek).

Talde hauen babesle gisa honako etxe hauek lagunduko diote Dorletako Amari: Caldereria San Pedro, Fagor, JMA, Ford Mugarri, Sport Sasiain eta Arrasate Kirolak. Laguntzen duten elkarte eta erakundeen ar-



Jubeniletako bi taldeak, joan den larunbateko aurkezpenean.

tean, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako udalak daude, baita Arrasateko txirrindulari elkarte, Almen kirol elkarte, Deba Garaiko zikloturistak, Eskoriatzako kirol elkarte eta UDA ere. Kolaboratzaile berezi gisa, Eskoriatzako Zu-

bia pate etxea, Gatzagako Gure-Ametsa jatetxea eta Andoni Zubizarreta futbolari internacional atxabaltarra ageri dira. Klubaren zuzendaritzan, bestalde, Jose Mari Roldan lehendakaria eta Jesus Garai lehendakariordea egongo dira.

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Mondra 2 - Anaitasuna 0  
Emakumezkoak: Mondra 9 - Aloña Mendi 0  
2. regionala: Mondra 3 - Urola 2  
Jub. Ohorezko Liga: Trintxerpe 0 - Mondra 7  
Jub., 2. maila: Arrasate 2 - UDA 3  
Kadeteak, 1. maila: Ordizia 0 - Arrasate 2  
Haurrak: Idiazabal 1 - Arrasate 4  
Hurrengoak:  
3. maila: Tolosa - Mondra. Igandea, 16.30.  
Emakumezkoak: Zumaiako - Mondra. Igandea, 16.30.  
2. regionala: Mutriku - Mondra. Larunbata, 16.30.  
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Beasain. Atxabalpe, lar., 16.45.  
Jub., 2. maila: Arrasate - Euskalduna. Atxabalpe, igan., 16.45.  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Aloña Mendi. Atxabalpe, lar., 11.30.  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Lazkao. Atxabalpe, igan., 12.00.  
Haurrak: Arrasate - Bergara. Atxabalpe, igan., 11.00.

**Saskibaloia**

2. maila: Patronato 80 - Arrasate 78  
Sub-23: Zarautz 78 - Arrasate 74  
Jub. mutilak: At. San Sebastian 42 - Arrasate A 67  
Arrasate B 38 - Laskorain 69  
Jub. neskek: Amigos Bcto. 78 - Patterncam 53  
Kad., mutilak: Askatuak B 87 - Loramendi Kirolak 36  
Zarautz 69 - Arrasate B 67  
Kad., neskek: Juven B 56 - Benetton 29  
Hurrengoak:  
2. maila: Arrasate - Atletico SS. Musakola, igan., 12.30.  
Sub-23: Arrasate - Juven. Musakola, igan., 10.00.  
Jub. mutilak: Arrasate A - Fortuna. Musakola., igan., 11.30.  
Iraurgi - Arrasate B. Azkoitia, lar., 16.00.  
Jub. neskek: Iraurgi - Patterncam. Azpeitia, lar., 11.00.  
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - La Salle. Musakola, lar., 12.00.  
Arrasate B - BKL CAF. Musakola, lar., 10.00.  
Kad., neskek: Benetton - Don Bosco. San Viator, lar., 12.00.

**Rugby**

Neskek: Arrasate 0 - Elorrio 77  
Jubenilak: Zarautz 37 - Arrasate 0  
Hurrengoak:  
Jubenilak: Arrasate - Ordizia. Garagartza, lar., 15.30.  
Nagusiak, lagunartekoa: Bilbo - Arrasate .  
Neskek, lagunartekoa: Arrasate - Unibertsitarios. Garagartza, lar., 16.30.

**Eskubaloia**

1. eskualdekoa: Bergara 23 - Arrasate Kirolak 13  
2. eskualdekoa: Ordizia 21 - Arrasate Kirolak 20  
Hurrengoak:  
1. eskualdekoa: Lancia - Arrasate Kirolak. Ormaiztegi, larunbata.

**Pilota**



Deba Arroa txapelketa:  
Nagusiak: Arrasate 22 - Antzuola 12  
Jubenilak: Arrasate 22 - Antzuola 14  
Infantilak: Arrasate 18 - Antzuola 2  
Hurrengoak:  
Oñati-Arrasate parekatzeak, larunbatean.

**TXOKO TABERNA**  
*Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*  
Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**  
Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**Txitxinpe**  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76





**urten** 200 urte betetzen dira San Viator ordenaren fundatzailea jaio zela, eta urtemuga horren inguruan ospakizun eta hitzaldi batzuk antolatu dituzte viatoristek. Arrasatera orain 56 urte etorri ziren, 1938ko martxoaren 3an ospatu da gainera urtemuga hori ere. Argazki txikiko eraikinerat etorri ziren, Gazteluondorra; orduan Centro Çaraa Bolivar deitzen zen, ofizialki. Errepublikara garaian herriko seme horren izena jarri zioten paperetan, erlijiosoa zenik jakin barik. Urte gutxian izan zen eskola publiko laikoa; gerra denboran viatoristak etorri eta Colegio San Jose jarri zioten izena.



1964ko ekainaren 9an jarri zuten gaur egun San Viator ikastola denaren lehen harria, beheko erretratuan. Herritar, agintari eta erlijioso ugari bildu zen Mendiatarrenak ziren lur-sail haietan obrari ekiteko ekitaldi sinbolikora. Ezkerretik, **Rafael Amozarrain, Agustin Azkoaga, Norberto Jauregibarria, eta Santi Arana**, Udaletxeko kontzejalak, kanpoko agintari bat, **Nazario Izar de la Fuen-**

**te**, Viatortarren probintziala, beste agintari bat, **Andres Bidaburu** funtziotan zegoen alkatea eta **Clemente Lopez Cano**, ikastetxeko zuzendaria.

Lehen harriarekin batera, herrira etortzen ziren eguneko periodikoak eta zirkulazioan zeuden txanponak sartu zituzten eta baita akta bat ere. Horrelakoetan ohitura izaten dute erlijiosoen Aita Santu eta Gotzai nortzuk di-

ren adierazteko, obra noren garaian egin den adierazteko, alegia, baina testu hartan ezin izan zen halakorik jarri, itxuraz. San Pedroren Katedra hutsik, hau da, Aita Santurik ez zegoela eta Donostiako Seda ere hutsik suertatu eizen une hartan, Aita Santu bat hil eta berria aukeratu bitartean, eta gotzai barik zeudela.

1967rako, obra amaituta eta ikastetxe berrian jarri ziren eskolak.



Mondeo



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**



# ARRASATE EUSKALDUNTZEN ARI GARRELAKO ETORKIZUNA EUSKARAZ DATORRELAKO

*Ez zaitez  
kanpoan geratu*

*Euskarak  
batzen gaitu eta*



Arrasateko Udala



Arrasate Euskaldun dezagun



## ARRDURATU ZUEN HAURREK EUSKARAZ IKAS DEZATEN



# Mikel Mujika de Leiba, magnetista

## "21 urte bete arte, neska jantzita ibili nintzen"

Joan den astean Monterronen izan zen "Magnetismoari" buruzko hitzaldia ematen. Jende ugari sendatu omen du eta bere bizitza orijinal xamarra dela esan behar da. Aldizkari osoa betetzeko adina gauza kontatu zigun. Hau laburpen bat besterik ez da.

— Nola sartu zinen magnetismoaren munduan?

— Nire amak sartu ninduen txikitari. Nire amak, ezaugarri berezi batzuk ikusi zituen nigan. Orduan, pertsona berezia nintzela ikusi zuenez, beste anaiengandik bereiztu egin ninduen eta heziketa berezia eman zidan.

— Zer zen zure ama?

— Nire ama markesa zen, nahi izanez gero beraz, ni ere Leibako markesa izan naiteke, baina ez da hori orain niri interesatzen zaidana. Ni, txikitatik, oso mugitua nintzen baina aldi berean, nahiko barnekoia ere bai. Nik beti jakin nahi izaten nuen gauzen zergatia, eta nire aitaren izaerak asko eragin zidan, nire aitaren erlazioei esker, nire etxetik oso pertsona garrantzitsuak igarotzen baitziren. Nire ama, Lizaso, "La señora del Arco Iris" eta "Hare Krshna"ren bultzatzailea izan zen. Ni maila espiritual, filosofiko eta metafisikoan hezi nin-



duen, "ikutuezinezko" norbait bezala.

— Nola igertzen da pertsona batek kalitate bereziak dituela?

— Ume txiki baten begiradan igertzen da, baita barrean ere. Nik Arrasatek pasatzen naizen bakoitzean, kalitate bereziak dituzten umeak ikusten ditut. Lehengo egunean adibidez, bi umetxo aurreratu zitzaizkidan... dena dela, ume bat edozer gauzaren beldur bada, ez du kalitatetik eukiko, horrek, zerbait oso erradikalki enfokatu edo ulertuarazi diotela esan nahi du. Nire amak, beraz, bizitzaren etapa bakoitzean negar egiten erakutsi zidan, baina ez zeri beldurrik ez izateaz ere arduratu zen.

— Nolakoia izan zen, beraz, zure haurtzarora?

Nire amaren ideologiaren arabera, gizonok ezin genuen negarrik egin, beraz neska jantzi ninduen eta 21

urte bete arte neska jantzita ibili nintzen. Nire amak "Mimi" deitzen zidan txikitari; "Mimi", 50. hamarkadan, zine aktorea frantziar bat zen eta nire amak feminitatearen eta intuizioaren atalak bilatzen zituen niretzat beti, imaginatu, horrek eragin handia izan zuen nigan, hazazkalak luze erabiltzen nituela, ilean "permanentea" egiten nuen eta 21 urte bete arte, nesken komunera joaten nintzen eta nesken erro-pak erosten nituen.

— Sendatu dituzun kasuetatik, zein azpimarratuko zenuke?

— Bederatzi urteko neskatxo baten kasua kontatuko dizut. Bere gurasoen aurrean, asma zuela eta arnasarik hartu ezin zuenez, hil egin nahi zuela esan zien gurasoei. Bere etxera joan nintzen goizeko 12.30etan eta elkarrekin egon ginen goizeko 3ak arte. Geroztik, ez du gehiago asmarik izan.

— Zer egin zenion ba?


— Negarrez pasatu nuen denbora guztia, neskaren egoera sentitzera dedikatu nintzen. Biok geunden negarrez, gertatuko zenagatik urduri. Nire eskuekin bero asko eman nion eta denbora luzez egon ginen eskutik ebata. Gorputzeko puntu batzuk ikutu nizekion eta horrela sendatu zen.

## LABURRAK

### Zaragozako Ballet Konpainia Arrasaten

Amaia Antzokia beste zita garrantzitsu baten topaleku izatera doa berriz ere. Kontzertu handien eta pasa berri den "Kakatu Berdea" antzerkiaren ondorean, estatuko ballet konpainia garrantzitsuenetarikoa bat dator gurera: Cristina Miñanek zuzentzen duen Zaragozako Ballet Konpainia. Martxoaren 12an izango da hau. Bisita honen mesedea, Arrasate Musika-leko ballet irakasleari, Ion Aranbarri zor diogula esan behar da: Ion konpainia honetako partaidea izan da luzaroan eta bere kontaktu eta interesari esker, Arrasatera ekartzea lortu du. Zorionez, gure herriko dantzaria ere eszenatokian dantzatzen ikusteko aukera izango dugu, bere herrian publikoaren aurrean dantzan egingo duen lehen aldia izango da, gainera.

Programa, bost koreografiak osatuko dute: Cristina Miñanaren "La Fille mal garde", "Suite Española" eta Ion Aranbarri eta Natalia Tapia donostiarrak interpretatzen duten "Aguas de Primavera" binakako pasoa alde batetik eta bestetik, Maurice Petiparen "El Quijote" famatua, A. Dolin-en "Pas de Quatre" eta Maurice Petipa eta Cristina Miñanaren artean egindako "La Bayadera".



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Tfnoa: 79 19 71





## Zuberoako Maskarada Aretxabaletan

Sortu berri den Loramen-di Kultur Elkarte atxabalta-rrak, sekulako ikuskizuna antolatatu du datorren iganderako.

Maskarada ez da gure herriko usadioetan finkatuegi dagoen ohitura bat, baina Iparraldeko herriek, zintzo-zintzo gordetzen dituzte era hone-tako ikuskizunak. Hori dela eta, Santutxuko Gaztedi Dan-tza Taldeak, Zuberoako Mas-karadaren moldaketa dakar Aretxabaletara. Moldaketa honen bitartez, hego Euskal Herriari, maskarada ulertzea errezagoa egiteko asmoa du Dantza Talde honek.

Orain arte, 3 emanaldi bes-terik ez dituzte egin. Gi-puzkoaren kasuan, Aretxaba-letarrak eta bertara hurbiltzen direnak izango dira ikuskizun zoragarri honetaz disfrutatze-ko aukera izango duten baka-rrak. Maskaradak, gure ihaute-ri giroko dantza eta kantak biltzen ditu eta horretaz gain, gaur egungo gaiak ukitzen ditu antzezlanean. Emanaldiak, bi zati nagusi ditu: Goiz partean "Barrikadak" eta arratsaldean, 5etan hasita, emanaldi nagu-sia.



# "Modelo Clowntrapublicidad": Iragarkietako feminitate ironikoa

Martxoak 8: Emakumea-ren eguna. Arrasaten, bai egun honek, bai aurrekoek eta atzekoek, izango dute ohirtzunik, ziur. Martxoaren 3an hasita eta 12ra bitartean, Arrasateko Emakumeen Asanbladak, Egizanek, Eki-nek, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak eta Emakumeen Udal Sailak, hainbat ekintza antolatu bai-tute; mahainguruak, hitzal-diak, bazkari eta afaria, ant-zerkia...

Ekitaldi interesgarriak guztiak, dudarik gabe. Dena den, ekintza horietako ba-tean parada egitea komeni da.

### "OIHULARI KLOWN"

Antzerki talde honen ja-torri puntua, 6 urte atzerago aurkitzen dugu, orduan hasi baitzen taldea clown-a jo-rratzen. Bederatzi lagunek osatzen dute taldea, neskek guztiak. Talde honek, ant-zezlan asko egin ditu dagoe-neko, horien artean, "La niña que tocó el arco iris", "La cabeza que iba de cabeza", "El palabrífico", "El príncipe feliz", "Abajo las notas", "Romeo eta Julieta" eta bes-te hainbat daude.

Finantziario kontuari dagokionez, Virginia Imaz zuzendari bergaratara kexu da: Aurtengo aurrekontuetan sekulako murrizketak egon direla eta, ez udaletxetik ezta diputaziotik ere, ez dute inolako laguntza ekonomikorik



Virginia Imaz, "Oihulari Clown" antzerki taldeko zuzendaria.

jaso. Taldea guztiz autono-moa da eta Clown tailer bat dutenez, jendeari irakatsiz ateratzen duten diruari es-ker finantzatzen dira gehinbat, baita antzerki ema-naldietan ateratako diruari esker ere.

"Oihulari Clown" ant-zerki taldeak, era guztietako obrak egiten ditu, bai hau-rrerentzat, baita nagusierentzat ere. Antzezlanek, zerbait al-darrikatzen dute beti, hau da, drogaren kontra edo eta irakurketa gaztetxoaren artean suspertu asmoz, Virginia Imaz zuzendariak, antzezlan desberdinak egiten ditu.

### "MODELO CLOWNTRA-PUBLICIDAD"

Hori da ostiraleko ema-naldian Virginia Imazek es-keiniko duen antzezlanaren izenburua. Obra honetako protagonista, "Pauxa", mo-delo izan nahi duen neska da (Virginia Imaz). Telebis-tako hainbat iragarki egite-ko, zenbait froga pasatu be-har ditu. Pauxak, publiko bera inplikatzeko du obran, horrela, telebistako iragar-kietan agertzen diren emaku-me "modelo" desberdinetaz konturatzen da ikuslea. Gai-nera, eszenatokian, Virginia bakarrik egongo da.

## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

## ARRASATE PRESS

PUBLIZITATEA



77 08 15



HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE




# Arrasateko Ikast

• BAGARA, EZ GARA, GOAZEN IKASTETXE PUBLIKOETARA •

## • ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTOA •

Ikastetxe Publikoa  
1994-95 ikasturtea



MUSAKOLAKO INSTITUTUA

### IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso, UBI eta REM lehen maila  
Ohizko irakasgaiez gain, aukerakoak honakoak dira:

1. BBB: Frantsesa-Ingelesa
  2. BBB: Erljioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, Diseinua, Informatika, Frantsesa
  3. BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
    - A. Zientzia Arloa
    - B. Letra Arloa
    - C. Zientzia-Letra Arloa
- U.B.I.: A. Zientzia-Teknologia Arloa  
B. Arlo Bio-Sanitarioa  
C. Giza Arloa  
D. Linguistika Arloa

### EZAUGARRI OROKORRAK:

- Inguruko Batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8,30etatik arratsaldeko 3ak arte
- Eskolaz kanpoko ekintzak: Zinema, Antzerkia, Txangoak, Argazkilaritza, Kirolak: Saskibaloia, Igeriketa, Ski-astea...

### EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia, eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo-gelak, liburutegia.

**MATRIKULA**

**AURREINSKRIPZIO EPEA**

Maiatzean

Tfnoa: 79 44 47/ 37

**DOHAINIK**



# astetxe Publikoak

• HAURRAK HAUR, BEREIZKERIARIK GABE,  
HERRI ESKOLAN DUDARIK GABE•

## • ARRASATEKO HERRI ESKOLAK •



SAN ANDRES

### ESKAITZEN DUGUNA:

Irakasteko Ereduak  
Inmertsioa  
D Eredua  
B Eredua

### IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza Berezia,  
Soinketa eta Musika.

### PEDAGOGIKOKI

Talde Multiprofesionala eta  
P.A.T. aholkuak

### ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Guraso Elkartearen laguntzarekin.

Multikirola, Zinemaldiak, Esku-lanak,  
Argazkigintza, eta bestelako ikastaroak.

**Tailerrak** ( Kontsumoa, Ingurugiroa,  
Drogomenpekotasuna, Sexualitatea,  
Aisia, Goxoki tailerra...)

### BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta Garraioa

Laborategia eta Liburutegia



MUSAKOLA



ERGUIN

**INFORMAZIOA OSATU  
NAHI BADUZU,  
DEI EGIN EZAZU:**


- Erguin: 79 77 74
- S. Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



• ESAERA ZAHARRA •

“Martxoan  
Erromako zubitik  
igarotzen da  
kukua”

• JEROGLIFIKOA •



Gipuzkoako herria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
	11					12	
13					14		
15				16		17	
18							19

J. B. AGORRIA

**Horizontala** 1. Instituzio. 9. Derrigor. 10. Emankizun. 11. Indioa. 12. (Ald.) Kontrol Unitatea. 13. Ez handia ez txikia dena. 15. Legez. 16. Apar. 18. Ezinezkoa. 19. Amnesty International.

**Bertikalak** 1. Nire. 2. Iñigo, “Gure Herria” liburua egin du. 3. Ahaztu. 4. (Ald.) Neuk. 5. (Ald.) Oharterazi. 6. (Ald.) Zeregin. 7. Ohore. 8. Ezjakin. 13. Berba. 14. Nikela. 17. Eta.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Osasunez ongi ibiliko zara, diruz gaizki ordea.

**Taurus** Gau ez irratia entzuten duzulako egun osoa erdi lo pasatzen duzu.

**Gemini** Bada ordua hainbeste kezkatzen zaituen arazo hori norbaiti esan diezaiozun.

**Cancer** Autoa gidatzen zabiltzanean errepideetako arriskua zeu zarela konturatu.

**Leo** Ez zara hitzeko pertsona. Esan gauza asko egiten dituzu, baina egin bat ere ez.

**Virgo** Mantekillazko eskuak daukazula dirudi. Zerbait hartu eta lurrera erortzen zaizu.

**Libra** Noizbait konturatu zara ingurukoek zenbat maite zaituzten.

**Scorpio** Norbaitzuk zure laguntzaren beharrean daude. Lagun iezaiezu.

**Sagitarium** Ikas ezazu dirua ez dela mundu honetako gauzarik garrantzitsuena.

**Capricorn** Kontuz ibili asteazkenean eta ez zaitetz ezkerreko hankarekin jaiki.

**Aquarius** Isilago ibili, zure zaratekin inguruko denak aspertuta daukazu eta.

**Piscis** Zuretzat ezinezkoak diren helburuak finkatzen dizkiozu zeure buruari.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



INO KABIJERTUAREN GOMENDIOA





Ezagutzen duenak badaki Ino emakume alaia dena. Bera jubilatuta dago, eta bere adinekoekin akordatu da gomendioa eskatu diogunean: "geraketa jakuna ahalik eta onduen pasetan ahaleginketako. Denpora gutxi geratuta be, aprobe-txetako esango nizkio, bizixa, bat bakarrik dau eta". Horretarako, inori faltau barik eta "atzeoak eta aurreoak zer esango duten begira egon barik, ondo pasetia komeni da". Horregatik du gogoko Benidormera joatea, dantzan egitea, eta "egunero, Klub Jubenilera (Abaroara) jokuan egitera".

PROGRAMAZIOA



- 6 Igandea**  
20.00etan Astebete (errep)  
20.30etan Mondragol
- 7 Astelehena**  
13.30etan Egurdiko Berriak  
13.35etan "Kukaratxa Motel" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak  
21.30etan Mondrasport  
22.00etan Filme Erraldoia: "Arrosaren izena"
- 8 Asteartea**  
13.35etan Mondrasport errep  
14.05etan "Arrosaren izena" errep  
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak  
21.30etan ATBketan  
22.00etan "Dirty Dancing"
- 9 Asteazkena**  
13.30etan Egurdietako Berriak  
13.35etan ATBketan errep  
14.05etan "Dirty Dancing" errep  
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak  
21.30etan Pareak Jokuan: "Emakumearen Nazioarteko Eguna"  
22.00etan Dokumentala: "Kometak; Espazioa ikerzteko untxiak"
- 10 Osteguna**  
13.30etan Egurdietako Berriak  
13.35etan Pareak Jokuan errep.  
14.05etan Dokumentala errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak  
21.30etan Bakarka. Gonbidatua: Miren Azkarate  
22.00etan Euskal Filmea: "Ehun metro"
- 11 Ostirala**  
13.30etan Egurdietako Berriak  
13.35etan Bakarka errep  
14.05etan "Ehun metro" errep.  
19.45etan "Kukaratxa Motel"  
20.00, 20.30, 21.00etan Berriak  
21.30etan Astebete  
22.00etan Haurren eguna: "Luky Luke eta Dalton-darren balada"

KOMIKIA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

SOLUZIOAK

**JERROGLIFIKOA**  
Zaldiria.  
Ta.  
Dedu. 8. Ezikas. 13. Eic. 14. Ni. 17.  
Ahamiti. 4. Nik. 5. Abisatu. 6. Lan. 7.  
**Bertikalak** 1. Enc. 2. Ramirez. 3.  
Lez. 16. Bis. 18. Ezina. 19. AI.  
Iez. 11. In. 12. KU. 13. Errain. 15.  
**Horizontalak** 1. Erakunde. 9. Nahi-  
**GURUTZEGRAMA**



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Maala** kalean. 75 m2tako. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Etxebizitzak salgai** Olarte kalean eta Bizkaia Etorbidean, 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Eguedian).
- **Baseri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai.** Irekia(marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Eguedietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Etxebizitza alokatu** nahi dut San Andresen. Tfnoa: 79 51 88.
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.
- **Bi lagun gara** eta apartamendu bat alokatu edo pisu bat konpartituko genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 36 14 50. Mikel. Dei egin 9,30etatik aurrera.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.

**Lana**

- **2. REMeko ikasle bati** kimika eta teknologiko klase partikularrik emateko prest bazaude, dei egin ezazu 79 21 64 tfnora. Mariasun.
- **Esperientziadun andrea** etxeko garbiketarako egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Ofizinak eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora.
- **Ingelesezko klaseak** ematen dira (mintzamina). 4.000 PTA. hilabeteko. Irakasle kanadiarra (Geoff). Ostiral arratsaldetan. Izen-ematea Biona tabernan.
- **Esperientziadun** administratiba prest lan egiteko. Tfnoa: 79 69 41 (Julia).
- **Deba Garairako PELUKERA** eta ESTETIZISTA behar ditugu. Interesatuak bidali kurrikuluma. Salbatierrabide, 32. D.D. 01007 Gasteiz. J. Martinen izenean.
- **Injineruak** injineritza, marrazkia eta UBiko klaseak emango lituzke. Asteburuetan. Esperientzia. Tfnoa: 79 53 40. Mikel.
- **Ur, gas eta berogailu instalakuntzak** egiten dira. Tfnoa: 79 91 22. Pedro.
- **OHOKo klaseak** emango nituzke. Tfnoa: 77 05 90. Nagore. Eguedi eta afalorduetan.
- **Neska bat** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 39 49.
- **10 urteko platanondoak** eskaintzen dira Loo baserrian. Tfnoa: 77 04 84.

**Salerosketak**

- **Trabesiako bota batzuk**, 42 zenbakikoak, Koflach markakoak. Egoera onean. Tfnoa: 79 39 88.

- **Lur zati bat** erosiko genuke bertan ortu edo baratza landatzeko. Udalarako bidean edo Garagartzaren inguruan gehiago interesatzen zaigu. Dei egin 79 39 42 tfnora. Angel.
- **Ontzi-garbigailua salgai.** Berria FAGOR markakoa. Tfnoa: 79 64 50.
- **Roneon 23 m2ko garajea** salgai. Itxita. Goiko solairuan. Tfnoa: 77 08 02.

**Denetarik**

- **Terreno laua** behar dugu alokagai. Tfnoa: 79 67 76. Raul.
- **Betaurrekoak galdu** nituen otsailaren 13 an edo. Marko beltza. Funda beltz baten barruan. "Imaz" Beasain jartzen du. Tfnoa: 88 17 95. Aintzane.
- **Argazki kamara automatikoa** galdu nuen ihauteri astearte gauean. Aurkitu baduzu barruan zeukan negatiboa, bota ARRASATE PRESSEKO buzoian.
- **Portaloitik Zigarrolara** bidean, estreinatu gabeko painolo bat galdu dut etiketa eta guztiz. Mesedez, aurkitu baduzu, deitu 79 12 32 tfnora. Zabaleta. Eskertuko da.
- **Belarritako bat galdu** zait. Zilarrezkoa da eta perla berdea dauka. Tfnoa: 79 29 92.
- **"Ion Iraolaren" fan elkarte**. Bidali bi argazkiak helbide honetara: Ignazio Zuloaga kalea, 19 zbk. -14. Maite zaitugu.
- **Igande arratsaldean** San Viator eta Aterpe taberna bitartean, urrezko pultsera galdu nuen. Grabatu gabe dago. Saritu egingo da. Tfnoa: 79 66 92. 10etatik aurrera.
- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- "Lurralde eta Hiri-Ikasketarako Euskal Eskola" k, LHIEEko ikerketa eta lankidetzako 8 bekatarako deialdia egiten du. Epea: Martxoak 16.
- 1994-95 ikasturteko ikertzaileak prestatzeko bekak. Beka motak: Doktordutza-aurreko bekak (Espainian eta atzerrian); EHE-ra itzultzeko doktordutza-ondorengo bekak; ikertzaileen hobekuntzarako doktordutza-ondorengo bekak (Espainian eta atzerrian). Epea: Martxoak 28.

**Hezkuntza Ministraritza**

- Udan inglesa eta frantsesa ikasteko diru laguntza. B.B.B, I.E.E eta L.H.II ikasleei zuzenduak. Epea: Martxoak 15.
- **Artelekuko Tailerrak**
  - "Multimedia instalazioa eta hiria" Francesc Torresen eskutik, "Trudimezko bidaiak tradizio modernoetan barrena" Simon Marchan Fizen eskutik eta "Photo-Ceci les couleurs de mes rêves" Dario Urzayen eskutik. Izenak emateko epea: Martxoak 18

**Lehiaketak**

- "Valle-Inclan Elkartearen II saria". Poesia, kontakizuna, teatroa, irrati gidioia eta zinema-telebistarako. Epea: Martxoak 30.
- "Errenteriako Komikien VI. lehiaketa". 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Epea: Apirilak 18.
- **Lana**
  - Gasteizko Udalak deitutako lanpostuak: 33 administrari laguntzaile (Eskola graduatua, LHI), 14 trafikoko eta aparkalekuen zaintzaile (Eskola zertifikatua)

"Piskanaka-piskanaka urteek damizkiguten eskubideak eta bizipen ezberdinak izateko aukerabideak ez ditugu izango, geroz eta zailago bihurtzen ari baitzaigu identitate guneak topatzea, gaztetan ezin gazte izan, eta zahartzaroan ezin."

AMAIA VAZQUEZ. KAZETARIA. EGUNKARIAN.



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



# HEZIBIDE

**Matrikulazioa zabalik**

❖ PROIEKTU EUSKALDUNA  
❖ ERREFORMARA EGOHITUA  
❖ TALDE PEDAGOGIHO SENDOA  
ETA ERAGINHORRA

**Izenematea martxoaren 1etik 14ra**



**SAN VIATOR**  
Ikastola  
**6-20 urte**  
Tfnoa: 79 04 11




**SAN FRANTZISKO XABIER**  
Ikastola  
**2-16 urte**  
Tfnoa: 79 26 40



**UMEZAINZA**  
Haur-Eskola  
**0-6 urte**  
Tfnoa: 79 01 02





Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kírolak"en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

UNITED COLORS  
OF BENNETTON.